

ARESKETA IKASTOLA
KOOPERATIBA
ELKARTEAREN ESTATUTU
SOZIALAK

EUSKADIKO KOOPERATIBEN 11/2019 LEGE
BERRIRA EGOKITUTA

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. IZENA, XEDEA, EGOITZA SOZIALA, IRAUPENA ETA LURRALDE EREMUA 4

1. artikulua. Izena	4
2. artikulua. Xedea	4
3. artikulua. Egoitza soziala	5
4. artikulua. Iraupena eta lurralde eremua	5
5. artikulua. Hizkuntza ofiziala	5
6. artikulua. Estatutuen aldaketa	5

II. KAPITULUA. BAZKIDEAK 7

7. artikulua. Bazkide izan daitezkeen pertsonak	7
8. artikulua. Onartzeko baldintzak	8
9. artikulua. Onarpenari buruzko erabakiak	9
10. artikulua. Onartzeko prozedura	9
11. artikulua. Onarpenari buruzko ebazpenen aurkako errekursoak	9
12. artikulua. Eskubide eta betebeharrak sozialak hasiera	9
13. artikulua. Bazkideen betebeharrak	10
14. artikulua. Bazkideen eskubideak	11
15. artikulua. Informazio eskubidea. Mugak eta bermeak.	11
16. artikulua. Bazkidearen borondatezko baja	14
17. artikulua. Bazkidearen nahitaezko baja	15

III. KAPITULUA. SOZIALTATEAREN DIZIPLINA ARRAUAK 16

18. artikulua. Bazkideen hutsegite motak	16
19. artikulua. Hutsegite sozialengatiko zehapenak	17
20. artikulua. Zehapen prozedura	18
21. artikulua. Kanporatzea	19

IV. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA 20

22. artikulua. Organo sozialak	20
23. artikulua. Batzar Orokorra	21
24. artikulua. Batzar Orokorren deia.	22
25. artikulua. Batzar Orokorren funtzionamendua	24
26. artikulua. Boto eskubidea	26
27. artikulua. Gehiengoak	26
28. artikulua. Batzar orokorraren erabakiak aurkaratzea	26
29. artikulua. Kontseilu Errektorea. Izaera eta eskumenak	27
30. artikulua. Kontseilu Errektorearen osaera eta berritzea	30
31. artikulua. Kontseilu Errektorearen funtzionamendua	32
32. artikulua. Kontseilu Errektoreari buruzko xedapenak	33
33. artikulua. Kontseilu Errektoreko kideen erantzukizunak eta erantzukizun akzioa	35
34. artikulua. Erabakiak aurkaratzea	36
35. artikulua. Zuzendari nagusia. Izendapena eta kargugabetzea. Zuzendariaren betebeharrak eta erantzukizunak.	37

36. artikulua. Zaintza Batzordea	38
37. artikulua. Errekurtso Batzordea	40
V. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA	41
38. artikulua. Erantzukizunak	41
39. artikulua. Kapital soziala.	41
40. artikulua. Kapital sozialeko nahitaezko ekarpenak	42
41. artikulua. Borondatezko ekarpenak	43
42. artikulua. Ekarpeneak eguneratzea	44
43. artikulua. Ekarpeneen interesa	44
44. artikulua. Ekarpeneen eskualdatzea	44
45. artikulua. Ekarpeneak itzultzea	45
46. artikulua. Partaidetza bereziak	47
47. artikulua. Sarrera kuotak, aldizkakoak eta ezohikoak.	47
48. artikulua. Beste finantzaketa batzuk	48
49. artikulua. Soberakin garbiak	48
50. artikulua. Soberakin erabilgarriak banatzea	48
51. artikulua. Nahitaezko Erreserba Funtse eta Derrigorrezko Kontribuzioa	49
52. artikulua. Borondatezko Erreserba Funtse Banaezina	50
53. artikulua. Galerak egozteak	50
54. artikulua. Kontu auditoretzak	50
VI. KAPITULUA. DOKUMENTAZIO SOZIALA ETA KONTABILITATEA	51
55. artikulua. Dokumentazio soziala	51
56. artikulua. Kontabilitatea	52
57. artikulua. Urteko Kontuen Gordailua	52
VII. KAPITULUA. DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA	52
58. artikulua. Desegiteko arrazoiak eta erabakia	52
59. artikulua. Likidazioa	54
60. artikulua. Sozietatearen ondasunak esleitzea	54
AZKEN XEDAPENAK	55
Lehena. Kooperatiba arbitrajea	55
Bigarrena. Delituak prebenitzeko eredu eta segimendua egiteko mekanismoak	55
Hirugarrena. Kooperatiba indarkeria sexistarik gabeko eremu bat izateko baliabide espezifikoak	56

I. KAPITULUA. IZENA, XEDEA, EGOITZA SOZIALA, IRAUPENA ETA LURRALDE EREMUA

1. artikulua. Izena

Aresketa Ikastola, KOOP. ELK. izenarekin, Araban, Irakaskuntza Kooperatiba bat eratu zen, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen, abenduaren 20koaren, Printzipio eta Xedapenen arabera, eta ezarri beharreko gainerako aginduen eta estatutu hauetan eta, dagokionean, barne araudian xedatutakoaren arabera.

2. artikulua. Xedea

Bat. Kooperatibaren helburu soziala da: unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza eskaintzea, edozein adarretan bere maila, etapa, ziklo, gradu eta modalitate ezberdinetan. Eskolaz kanpoko ekintzak zein osagarriak antolatu ahal izango dituzte, bai eta hezkuntza jarduera eskola zerbitzuak eman. Honetarako bestelako Erakunde Publiko nahiz Pribatuarekin elkarlanean aritu ahal izango dira.

Bi. Erakundeak bazkideen seme-alaben hezkuntza bere egoitzetan edota etorkizunean eraiki ditzakeenetan kooperatiboki burutuko du, irabazi asmoak baztertuz eta erretornu kooperatiboaren banaketa baztertuz, ondorengo oinarritzko printzipioekin bat eginez:

1. Ikasleen prestakuntza integralan zeinak ikasgai desberdinen ezagutza ez ezik, beraien nortasunaren garapena eta pertsona libre eta arduratsua izateko prestakuntza ere berretsiko dituen, beti ere aukeren berdintasuna ziurtatuko duen irizpide integratzaileak erabiliz.
2. Ikasleen heziketa euskaldunaren garapena, euskara eta euskal kulturaren garapen eta pizkundearen transmisioan jarrera aktiboa gara dezatela ahalbidetuz Euskara eta euskal kultura bultzatzearen, Euskal Herriko ikastolek eratutako organismoetan parte hartuz eta zabalduz.
3. Euskara eta euskal kultura xedetzat dituzten Euskal Herriko ikastolek sortutako erakundeetan eskuhartzea eta bultzatzea.
4. Hezkuntzan zuzenki inplikaturako kolektiboek ikastolaren funtzionamenduan parte har dezatela bultzatuz, partaidetza formulak proposatuz.
5. Zio soziala gestio demokratikoa eta partaidetzaren bidez gauzatuko da, Ikastola osatzen duten estamentu guztietara helduz, zentruaren autonomia gutxitu gabe eta Euskal Herrirako hezkuntza proiektu propioa bultzatzen duten Ikastolen kolektiboarekin elkarlanean
6. Arestiko lerroaldietan aipaturiko elkarlana kaltetu barik, kooperatiba bestelako edozein erakunde edo entitate publiko zein pribatuarekiko autonomia eta independentzia osoz arituz.

3. artikulua. Egoitza soziala

Kooperatibaren egoitza soziala Amurrio herriko Aresketa auzoko 2. zenbakian dago, eta udalerrri berean egindako lekualdatzeak Kontseilu Errektoreak erabaki ditzake, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen, abenduaren 20koaren, 79. artikuluan ezarritakoari jarraituta.

4. artikulua. Iraupena eta lurralde eremua

- Bat.** Kooperatibaren iraupen mugagabea izateko eratu zen, eta jarduera kooperatibizatua Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta inprimakian ezarritako egunean hasiko da.
- Bi.** Jardueraren lurralde eremua batez ere Araban lurralde historikora mugatzen da.

5. artikulua. Hizkuntza ofiziala

Euskara da hizkuntza ofiziala. Nolanahi ere, ikastolaren eremu soziolinguistikoa kontuan hartuta, gainerako hizkuntza ofizialak erabiltzea ere bermatuko da, nahiz eta lehentasuna emango zaion euskarari.

6. artikulua. Estatutuen aldaketa

- Bat.** Estatutuen aldaketa Batzar Orokorrak onartu behar du, baldintza hauek beteta:
- a) Kontseilu Errektoreak edo, hala badagokio, proposamena egiten duten bazkideek txosten idatzi bat eman behar dute proposamenaren justifikazio zehatzarekin.
 - b) Deialdian argi eta garbi adierazi behar da zer alderdi aldatu behar diren.
 - c) Deialdia iragartzean bertan berariaz jasotzea bazkide guztiek dutela proposatutako aldaketaren eta hori justifikatzen duen txostenaren testu osoa egoitza sozialean aztertzeko eskubidea eta, halaber, dokumentu horiek eskuratzea eskatzeko eskubidea edo dohainik bidaltzeko eskatzekoa.
 - d) Erabakia Batzar Orokorrak hartuko du, bertan dauden eta ordezkaturik dauden boto baliodunen gehiengoz, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen, abenduaren 20koaren, 38.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - e) Sozietatearen izena, egoitza edo xede soziala aldatzeko erabakia, gainera, Araba lurralde historikoan zabalkunde handia duen egunkari batean argitaratuko da, inskribatu aurretik.

Erabakia, onartutako testuarekin, eskritura publikoan jasoko da, eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuko da.

- Bi.** Aldaketaren oinarria kooperatiba mota aldatzea bada, edo xede soziala nabarmen aldatzea, aurka bozkatu duten bazkideek, edo, batzarrera joan gabe, Kontseilu Errektoreari idatziz euren desadostasuna adierazi diotenek, eskubidea izango dute kooperatibatik bereizteko, berrogei eguneko epean, erabakia Kooperatiben Erregistroan inskribatu zenetik hasita. Kasu horietan, baja justifikatutzat joko da.

ZIRRIBORROA

II. KAPITULUA.BAZKIDEAK

7. artikulua. Bazkide izan daitezkeen pertsonak

Bat. Bazkide erabiltzaileak

- a) Kooperatiban seme-alabak edo tutoretzapekoak dituzten gurasoak, ordezkariak edo tutoreak, haien guraso ahala esleitu bazaie.
Onartzeko unean Kooperatibari jakinarazi beharko diote zein aita, ama, ordezkari edo tutore izango den bazkidea, bat bakarrik izan daiteke eta.
- b) Adineko eta emantzipatutako ikasleak, Kooperatibak bere barne araudian zehazten dituen ikasturteetan eta egoeretan, barne araudirik baldin badu, eta, horrelakorik ez badu, Batzar Orokorrak hartzen duen erabakiaren bidez.
- c) Adingabeko ikasleen edo desgaituen legezko zaintza eta babesa erakunde eta instituzio publikoen eta onura publikoko erakunde pribatuen esku dagoenean, ongintzako erakundeak barne, edo haiek zuzendutako zentro, egoitza edo etxeetan ostatu hartutako adin nagusiko ikasleak ordezkatzeko dituztenean, betiere haien ordezkaritza berariaz eman badiete.

Bi. Bazkide laguntzaileak

Bazkide laguntzaileak izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, kooperatibaren helburu soziala bete-betean aurrera eramaterik ez badute ere helburu soziala lortzen lagun dezaketenak eta gainerako bazkideekin interes komuna dutela egiaztatzen badute.

Bazkide erabiltzaile izateari uzten dioten pertsonak, kooperatiban parte hartu nahi badute, bazkide laguntzailearen izaera eskuratu dezakete, betiere idatziz eskatzen badute eta beharrezko baldintzak betetzen badituzte.

Erakunde eta instituzio publikoak eta onura publikoko pribatuak, bazkide laguntzaileak badira, bazkide erabiltzaile izan ahal izango dira aldi berean, ikasle adingabeen edo ezgaien legezko zaintza eta babesa egikaritzen ari direnean edo beren menpeko etxe, egoitza edo establezimenduetan hartu dituzten ikasle adinez nagusiek beren ordezkari izateko ahalmena berariaz eman dietenean.

Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiek ezarriko dituzte onartutako bazkideen lankidetzaren baldintzak eta gainerako eskubide eta betebeharrak espezifikoki.

Hala ere, estatutu sozial hauen 13. eta 14. artikuluetan adierazitako

betebeharrak eta eskubideak izango dituzte, baldin eta bateragarriak badira espezifikoekin eta hitzartutako lankidetzarekin.

Haien boto eskubidea Estatutu hauen 26. artikuluan arautzen da.

8. artikulua. Onartzeko baldintzak

Bat. Pertsona batek, bazkide erabiltzaile izateko, baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Hemezortzi urte baino gehiago izatea edo nortasun juridikoa izatea eta jarduteko gaitasun osoa.
- b) Kapital sozialerako ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta estatutu sozial hauetan bazkide mota horrentzat ezarritako hasierako nahitaezko ekarpena egitea, edo Batzar Orokorrak erabakitakoa eta indarrean dagoena.
- c) Estatutu sozial hauetan bazkide erabiltzaile horrentzat ezartzen den partaidetza konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibaren organo sozialek baliozkotasunez hartutako erabakiak eta indarreko kooperatiba legeria onartzea eta betetzea, baita estatutu sozial hauek eta barne araudia ere.
- e) Kooperatiban ikasle gisa sar daitezkeen seme-alabak edo tutoretzapekoak izatea, edo Kooperatibak ematen duen irakaskuntzaren edo zerbitzuaren hartzaile izatea.
- f) Onarpena eskatzea, Kontseilu Errektoreari zuzendutako eskari bidez.

Bi. Pertsona batek, bazkide laguntzaile izateko, baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Hemezortzi urte baino gehiago izatea edo behar besteko nortasun juridikoa izatea.
- b) Kapital sozialerako ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta estatutu sozial hauetan bazkide mota horrentzat ezarritako hasierako nahitaezko ekarpena egitea, edo Batzar Orokorrak erabakitakoa eta indarrean dagoena.
- c) Estatutu hauetan eta sarrera akordioan bazkide laguntzaile horrentzat ezartzen den partaidetza konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibaren organo sozialek baliozkotasunez hartutako erabakiak eta indarreko kooperatiba legeria onartzea eta betetzea, baita estatutu sozial hauek eta barne araudia ere.
- e) Onarpena eskatzea, Kontseilu Errektoreari zuzendutako eskari

bidez.

9. artikulua. Onarpenari buruzko erabakiak

Bat. Bazkideak onartzeari buruzko erabakia Kontseilu Errektoreari dagokio.

Bi. Bazkideak onartzeko erabakiak soilik mugatu ahal izango dira kausa justifikatua badago:

- a) Kooperatibaren zerbitzuaren ahalmena.
- b) Bazkide moduan onartzeko jarritako betebeharrak objektiboak ez betetzea, edozein bazkide mota delarik ere.

Sozietatearen xedeari dagokionez, onarpenari baiezkota edo ezezkoa ematea ezin izango da edozelako bereizkeria eragiten duten arrazoiak oinarritu.

10. artikulua. Onartzeko prozedura

Bat. Onartzeko eskaria idatziz formulatuko zaio Kontseilu Errektoreari, eta hark erabakiko du, gehienez ere 60 eguneko epean eskaria jasotzen duenetik, edo probaldia amaitzeko datatik, dagokionean.

Bi. Aipatutako epea igaro eta esanbidez ebazpenik eman ez bada, onarpena onartutzat hartuko da.

Hiru. Nolanahi ere, Kontseilu Errektoreak kooperatibako iragarki taulan argitaratu beharko du onartzeko edo ez onartzeko erabakia.

11. artikulua. Onarpenari buruzko ebazpenen aurkako errekursoak

Bat. Ukatzeko erabakiaren aurka errekurtoa jarri ahal izango du eskatzaileak Errekurtso Batzordean, hogeit eguneko epean, ukatzeko erabakia jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Hogeita hamar eguneko epean ebatzi beharko du Errekurtso Batzordeak.

Nahitaezkoa izango da interesdunari alde aurretik entzutea.

Bi. Onartzeko erabakiaren aurka errekurtoa jarri ahal izango da Errekurtso Batzordean, hogeit eguneko epe berean, onartzeko erabakia jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

Errekurtso Batzordeak hogeita hamar eguneko epea izango du ebazpena emateko. Nahitaezkoa izango da interesdunari alde aurretik entzutea.

12. artikulua. Eskubide eta betebeharrak sozialen hasiera

Eskubide eta betebeharrak sozialek onarpen erabakia hartu zen egunetik

aurrera izango dituzte ondorioak, salbu eta erabakia errekurritzen denean; kasu horretan, eten egingo da Errekurtso Batzordeak.

13. artikulua. Bazkideen betebeharrak

Hona hemen bazkideen betebeharrak:

- a) Batzar Orokorraren eta deitzen dieten gainerako organoen bileretara joatea.
- b) Kargu baterako hautatuak izan badira, onartu egin behar dute, ez onartzeko aitzakia justurik ez badute behintzat.
- c) Kooperatibaren xede soziala osatzen duten jardueretan parte hartzea. Ondorio horietarako, parte hartzeko gutxieneko modulu edo arau batzuk zehazten dira, Kooperatibako bazkide mota bakoitzerako, hau da:
 - Bazkide erabiltzaileentzat: seme-alabak edo tutoretzapekoak Kooperatibara bidaltzea ematen diren irakaskuntza zikloetan zehar edo eskatzen dituzten zerbitzuak erabiltzea, une bakoitzean zehazten diren ekarpenak eta aldizkako kuotak ordaintzea. Eskatzen zaizkien auzolanetan/eginkizunetan parte hartzea.
 - Bazkide laguntzaileentzat : Kooperatibaren esanetara egotea, xede soziala garatzeko eta hobetzeko agintzen zaizkien eginkizunak betetzeko, onarpen erabakiarekin bat etorritik.
- d) Kooperatibak lantzen duen xede sozialarekin lehian sartzen den jarduerarik ez egitea eta jarduera horiek egiten dituztenekin lankidetzan ez aritzea, Kontseilu Errektoreak berariaz baimentzen ez baditu behintzat.
- e) Kooperatibaren jarduerak eta datuak isilpean gordetzea, baldin eta horiek zabaltzeak interes sozialak kaltetu baditzake.
- f) Kapital sozialerako ekarpenak ordaintzea aurreikusitako baldintzetan eta aldizkako kuotak ordaintzea ezartzen diren epeetan.
- g) Galeren egozpena onartzea, Batzar Orokorrak erabakitako zenbatekoan.
- h) Bazkide erabiltzaileak euren seme-alaben edo tutoretzapekoen arduradunek deitzen dituzten bileretara joan beharko dira, haiek Kooperatiban egiten ari diren ikasketen bilakaeraz eta egoeraz informatzeko eta azaltzeko, baita kooperatibaren beste zerbitzu batzuk hartzen dituzten bazkideentzat deitzen diren bileretara

ere.

- i) Kooperatiba barruan giro sozial egokia eta errespetuzko bizikidetza izaten laguntzea, harekiko jarrera leialarekin.
- j) Kooperatibaren izen ona zikintzen duen adierazpen publikorik ez egitea.
- k) Lege arauetatik eta estatutuetatik eratortzen diren gainerako betebeharrak betetzea, baita kooperatibako organoek balioz hartutako erabakietatik datozenak ere.

14. artikulua. Bazkideen eskubideak

Bat. Bazkideen eskubideak hauek dira:

- a) Kooperatibako organoetako karguetarako kideak hautatzea, eta kargu horietarako hautatuak izatea.
- b) Batzar Orokorrean edo batzarkide diren gainerako organoetan proposamenak egitea eta hartzen diren erabaki guztietan parte hartzea hitzez eta botoa emanez.
- c) Kooperatibaren jardura eta zerbitzu guztietan parte hartzea, bereizkeriarik gabe.
- d) Eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazioa jasotzea. Hori guztia estatutu sozial hauetako hurrengo artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.
- e) Estatutu hauen esparruan barne ordenamendu juridikoan aldaketak sustatzea.
- f) Bidezkoa bada, sozietatearen kapitalera egindako ekarpenak eguneratzea eta itzultzea, baita, hala badagokio, sortutako interesak jasotzea ere.
- g) Kooperatibako organo sozialek hartutako erabaki baliodunak betearaztea.
- h) Legeetatik eta estatutuetatik eratortzen diren gainerakoak.

Bi. Eskubide sozial horiek bazkide guztientzat berdinak dira, eta legeen eta estatutuen arauen eta Kooperatibako organoek hartutako erabaki eta ebazpen baliodunen arabera beteko dira.

15. artikulua. Informazio eskubidea. Mugak eta bermeak.

Bat. Bazkideek informazioa jasotzeko eskubidea baliatu ahal izango dute Legean, estatutuetan edo Batzar Orokorrearen erabakietan

aurreikusitako moduan, zeinetan egoki iritzitako bideak jarri ahal izango baitira bazkideen eskubide hori erraztu eta gauzatzeko.

Bi. Bazkide orok eskubide hauek izango ditu:

- a) Kooperatibaren estatutu sozialen eta barne araudiaren kopia bat eskatzea, halakorik balego.
- b) Kooperatibako Bazkideen Erregistro Liburua eta Batzar Orokorreko Akten Liburua aztertzea, eta, aurrez eskaera arrazoitua egiten badu, aktaren eta Batzar Orokorrean hartutako erabakien kopia ziurtatua eskuratzea, baita Bazkideen Erregistro Liburuko inskripzioen ziurtagiria ere.
- c) Norberari banaka eragiten dioten Kontseilu Errektorearen erabakien kopia ziurtatua eskatzea.
- d) Kooperatibarekin duen egoera ekonomikoaren berri jaso ahal izango du Kontseilu Errektorearen eskutik, hilabeteko epean gehienez ere, eskatzen denetik aurrera kontaturik.
- e) Kooperatibako funtzionamenduaren edo emaitzen edozein alderdiri buruz beharrezkotzat jotzen dituen argibideak edo txostenak idatziz eskatzea Kontseilu Errektoreari. Idazki hori aurkeztu eta hamabost eguneko epean egingo den lehenengo Batzar Orokorrean eman beharko dira argibide edo txosten horiek.
- f) Bazkideek ahoz eskatu ahal izango dituzte beraiei dagozkien esplikazioak edo azalpenak ekitaldiko kontuez edo edozein proposamen ekonomikoz erabakiko duen Batzar Orokorrean.
- g) Urteko kontuak eta emaitzak aplikatzeko proposamena jasotzen dituzten dokumentuak eskuragarri izatea sozietatearen egoitzan, deialdiaren epean aztertu ahal izateko, edo proposamen ekonomikoa justifikatzen duen dokumentazioa, Batzar Orokorrean, gai zerrendaren arabera, ekitaldiko kontuei edo edozein proposamen ekonomikori buruz eztabaidatu behar denean.
 - Epe horretan, bazkideek eskubidea izango dute Kontseilu Errektorearen txostena sozietatearen egoitzan aztertzeko eta, dagokionean, kontuen kanpo auditoretzaren txostena. Halaber, Zaintza Batzordearen txostena bazkideen eskura egon beharko da, estatutuen 36. artikuluaaren arabera.
 - Epe horretan, bazkideek agiri ekonomiko horiei buruzko azalpenak eta argibideak eskatu ahal izango dituzte, idatziz eta Batzar Orokorra izan baino bost egun lehenago gutxienez, eta Batzarrean emango zaie erantzuna.

- Hiru.** Aurreko bigarren atalean ezarritako eskubidearen kalterik gabe, gutxienez boto sozialen %10 ordezkatzeko duten bazkideek, edozein unetan, beharrezkotzat jotzen duten informazioa eskatu ahal izango dute idatziz. Kontseilu Errektoreak idatziz eman beharko du eskatutako informazioa, gehienez hogeita hamar eguneko epean.
- Lau.** Nolanahi ere, Kontseilu Errektoreak Kooperatibaren aldagai sozioekonomiko nagusien berri eman beharko die bazkideei edo haiek ordezkatzeko dituzten organoei, gutxienez hiru hilean behin eta egoki ikusten dituen bideak erabiliz.
- Bost.** Kontseilu Errektoreak informazio eskaera ausarkeriaz edo oztopatzeko asmoz egin denean edota informazioa emateak Kooperatibaren interes legítimoak arriskuan jartzea dakarrenean baino ezingo du ukatu informazioa. Hala ere, ez da salbuespen hori egingo ukatutako informazioa Batzar Orokorraren ekitaldian eman behar denean eta informazio eskaera bertaratutako eta ordezkatzeko botoen erdiek baino gehiagok babesten dutenean, eta, gainerako kasuetan, hala erabakitzen dutenean Errekurtso Batzordeak informazioa eskatu duten bazkideek jarritako errekurtsoaren ondorioz.
- Nolanahi ere, eskatzaileek Kontseilu Errektorearen ukoa aurkaratu ahal izango dute, Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen, abenduaren 20koaren, 25. eta 51. artikuluetan xedatutakoaren arabera.
- Sei.** Berme sistema hau ezartzen da informazio eskubideaz baliatzeko:
- a) Kontseilu Errektoreari informazioa eskatzen dioten bazkideek eskaera oro sinatu beharko dute, behar bezala identifikatuta eta eskaeraren azalpen arrazoitua emanda.
 - b) Gutxienez bazkideen %20k izenpetzen badu informazio eskaera, Kontseilu Errektorearen ezezko erabakiak bi hereneko gehiengo kualifikatua eskatuko du.
 - c) Kontseilu Errektoreak informazioa ukatzeko hartutako erabakiaren aurka errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Errekurtso Batzordean erabakia jakinarazi eta hogeita hamar eguneko epean.
- Hogeita hamar eguneko epean ebatzi beharko du Errekurtso Batzordeak.
- Bi kasuetan, nahitaezkoa izango da interesdunari edo interesdunei aldeztu aurretik entzutea.
- Zazpi.** Oro har, bazkideen informaziorako eskubidea errespetatzeko berme hauek ezartzen dira, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legeak, abenduaren 20koaren, 24. eta 25. artikuluetan ezarritako baldintzetan:
- a) Kontseilu Errektorea da bazkideen informaziorako eskubidea

bermatzeko organo eskumenduna.

- b) Kontseilu Errektoreak soilik ukatu ahal izango du informazioa, arrazoituta, Estatutu hauetako artikulua honetako bosgarren atalean, aurreikusitako egoeretan, eta aipatu atalean adierazitako salbuespenarekin.
- c) Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legeak, abenduaren 20koak, edo beste lege batzuek eta estatutu hauek xedatutako mugak baino ez ditu izango bazkideak lortutako informazioa erabiltzeko.
- d) Kooperatibak bere bazkideekin harremanetan egoteko erabilitako formatu, programa edo lengoaia informatikoei buruzko informazioa eskatu ahal izango da.
- e) Eskatutako informazioa formatu elektronikoa bidali ahal izango da.
- f) Informazioa eskaeran erabilitako Euskadiko hizkuntza ofizial berean bidali beharko da, eta eskatzaileak berariaz horrela egiteko eskatu badu.

16. artikulua. Bazkidearen borondatezko baja

- Bat.** Edozein bazkidek borondatez utz dezake Kooperatiba noiznahi, betiere aldeztu aurretik eta idatziz Kontseilu Errektoreari jakinarazten badio, bi hilabetek aurrerapenarekin, arrazoi justifikatuen kasuan izan ezik.
- Aurreko atalean ezartzen denaz gain, bazkideak sozietatean jarraitu beharko du eta bere izaera mantendu, ekitaldi ekonomikoa amaitu arte.
- Bi.** Aurreabisurako epea ez betetzea, baita ezarritako gutxieneko egonaldiak errespetatzen ez dituzten bajak ere, justifikatu gabeko bajatzat joko dira, Kooperatibako Kontseilu Errektoreak, kasuaren ezaugarriei erreparatuta, besterik erabaki ezean, hargatik eragotzi gabe bazkideari eskatu ahal izatea kooperatiban nahitaez egin beharreko lan eta zerbitzu guztiak betearaztea eta, hala badagokio, dagozkion kalte-galeren ordainak.
- Hiru.** Kontseilu Errektorearen eskumena izango da baja justifikatutzat edo justifikatu gabekotzat jotzea, eta gehienez ere hiru hilabeteko epean formalizatu beharko da, artikulua honen lehenengo atalean aipatzen den aurreabisua jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Kalifikazioa idatziz jakinaraziko zaio bazkide interesdunari. Epe hori igarotzen bada administratzaileek jakinarazi gabe, baja justifikatutzat joko da.
- Lau.** Borondatezko baja justifikatu gabekotzat joko da bazkideak egingo dituen jarduerak Kooperatibaren jardurekin lehian daudenean.
- Bost.** Kooperatibak bat egiten duenean, zatitzen denean, transformatzen

denean edo kooperatiba mota aldatzen denean edo haren helburu soziala esanguratsuki aldatzen denean, edo kapitalari nahitaezko ekarpen berriak egitea exijitzen denean, baja justifikatutzat joko da baldin eta bazkideak dena delako erabakiaren kontra bozkatu badu, edo, erabaki hori hartu zuen Batzar Orokorrera joan ez arren, erabaki horrekiko desadostasuna adierazten badu.

17. artikulua. Bazkidearen nahitaezko baja

Bat. Nahitaez baja hartu beharko dute Euskadiko Kooperatiben Legearen edo estatutu sozial hauen arabera bazkide izateko bete behar diren betekizunak galtzen dituzten bazkideek. Edonola ere, bazkideei nahitaezko baja emateko arrazoiak izango dira:

- bazkide izateko eskatzen diren lege baldintzak galtzea,
- iraupen jakineko bazkideentzat, sozietate loturarako hitzartutako aldia amaitzea,
- kapital sozialera egin beharreko nahitaezko ekarpenari lotutako betebeharrak ez betetzea, izan hori hasierakoa zein Batzar Orokorrak onartutako nahitaezko ekarpen berri bat,
- kanporatzea, eta
- heriotza.

Bi. Nahitaezko baja Kontseilu Errektoreak erabakiko du, interesdunari entzun ondoren, ofizioz, edo beste bazkideren batek edo ukitutako pertsonak berak eskatuz gero.

Hiru. Kontseilu Errektorearen erabakia betearazlea izango da Batzar Orokorraren berrespena jakinarazten den unetik edo errekurritzeko epea igaro ondoren.

Lau. Nahitaezko baja justifikatutzat joko da bazkide izateko baldintzak betetzeari uztea ez denean gertatu bazkideak Kooperatibarekiko betebeharrak betetzeari utzi diolako nahita, edo nahitaezko bajaren bidez bidegabeko onura lortu nahi duelako.

Bost. Bazkideren bat ez badago ados bere borondatezko bajaren nahiz nahitaezko bajaren kalifikazio edo ondorioei buruz Kontseilu Errektoreak erabakitakoarekin, errekurtsua jartzeko aukera izango du. Halako kasuetan, estatutu hauetako 21. artikuluko 2. eta 4. ataletan ezarritakoa aplikatuko da.

III. KAPITULUA. SOZietatearen DIZIPLINA ARAUAK

18. artikulua. Bazkideen hutsegite motak

- Bat.** Kooperatiba giro sozial egoki eta arduratsua ziurtatzeko, eta bazkideen arteko elkarbizitza eta ekonomia kudeaketa inolaz ere ez oztopatzeko, ondorengo artikuluetan barne arautegia ezarriko da.
- Bi.** Bazkideek egindako hutsegite sozialak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, garrantziaren, norainokoaren eta maleziaren arabera.
- Hiru.** Hutsegite sozial oso larriak dira:
- a) Lehia eragiketak; kapitalari egindako ekarpenen iruzurra; datu garrantzitsuak ezkutatzea, eta Kontseilu Errektoreko kideei eta ordezkari sozialei begirunerik ez izatea, Kooperatibaren interes materialei edo prestigio sozialari kalte egiten badiete.
 - b) Dokumentuak, sinadurak, zigiluak, markak edo antzeko datuak faltsutzea, horiek garrantzitsuak badira kooperatibak bazkideekin edo hirugarrenekin dituen harremanetarako.
 - c) Kooperatibaren interesei kalte larriak eragiten dizkieten ekintzak edo jarduerak egitea, baita kooperatibaren sekretuen berri ematea edo zabaltzea ere.
 - d) Kontseilu Errektorearen edo bertako edozein kideren funtzioak usurpatzea.
 - e) Bazkide egoeraz baliatzea espekulazio jarduerak edo legearen aurkakoak egiteko.
 - f) Estatutu sozial hauetako 13. artikuluan transkribatutako betebeharrak larriki edo behin eta berriz ez betetzea, eta egitez eta/edo hitzez bazkideak kooperatibaren prestigioa edo ondarea, baita, oro har, eratu zenean kooperatibak zehaztutako helburu soziala ere, kaltetzen duen ekintza errepikatzea.
 - g) Beste bazkide batzuk edo kooperatibako langileak, halakorik balego, hitzez edo egitez gaizki tratatzea, organo sozialean bileretan edo lanak, jarduerak edo sozietatearen helburuaren garapenerako beharrezkoak diren operazioak egitean.
 - h) Hutsegite larriak behin eta berriz egitea, urtebetetik beherako epean.
 - i) Organo eskudunek onartutako baliozko erabakiak nabarmenki ez betetzea.
 - j) Kontseilu errektorekideei dagozkien egitekoak nork beretzat hartzea.

Lau. Hutsegite larriak honako hauek izango dira:

- a) Behar bezala deitutako Batzar Orokorretara justifikatu gabe ez joatea, baldin eta bazkidea hutsegite arinagatik bi aldiz zehatua izan bada, azken hiru urteetan organo sozial horren bileretara ez joateagatik.
- b) Hautatuak izan direneko kargu sozialak arretaz ez betetzea, ez onartzea edo dimititzea horretarako bidezko arrazoirik gabe.
- c) Estatutu hauetan aurreikusitako betebeharrak ekonomikoak betetzeko garaian atzeratzea.
- d) Baimenik gabe dokumentuak, gutunak eta datuak atxikitzea, edo dagokien ez bezala aplikatzea, bideratzea edo erabiltzea.
- e) Bazkide bakoitzari agindutako lanak eta erantzukizunak ondo betetzea larriki oztopatzen duten ekintza edo omisio maltzurak.
- f) Hutsegite arinak behin eta berriz egitea, urtebetetik beherako epean.

Bost. Hutsegite arinak honakoak izango dira:

- a) Batzar Orokorren saioetara justifikaziorik gabe ez joatea, bazkideari behar bezala deitu bazaio.
- b) Kooperatibako idazkariari ez jakinaraztea ohiko helbidearen aldaketa edo/ta harremanetarako datuen aldaketa, hori gertatzen denetik bi hilabeteko epean.
- c) Estatutuetako, araudietako eta funtzionamendu arauetako aginduak ez betetzea, gutxienez behin, ez jakite barkaezina dela-eta.
- d) Zabarkeria edo arduragabekeria desenkusaezinez jokatzeko, kooperatibaren intereseei kalterik egiten ez badie.
- e) Maltzurkeriaz zerbait egin edo ez egitea, bazkide bakoitzari dagozkion zeregin eta arduren martxa ona oztopatuz.

19. artikulua. Hutsegite sozialengatiko zehapenak

Bat. Hutsegite arinengatik:

- Idatzizko kargu hartzea.
- Boto eskubidea etetea, gehienez ere urtebetez.
- Zehapen ekonomikoa, zehazki bazkide mota horrentzat indarrean dagoen nahitaezko ekarpenaren % 10aren baliokidea.

Bi. Arau hauste larriengatik:

- Lehenengo atalaren aurreko guztiak.

- Kooperatibako organo sozial kolegiatuetakoko kide hautatua izateko desgaituntza bi urtez.
- Ohartarazpen idatzia, zeina, Kontseilu Errektoreko kideen iritziz, publiko egin ahal izango baita.
- Boto eskubidea etetea, bi urtera arteko epe batez.
- Zehapen ekonomikoa, zehazki bazkide mota horrentzat indarrean dagoen nahitaezko ekarpenaren % 30aren baliokidea.

Hiru. Arau hauste oso larriengatik:

- Aurreko lehenengo eta bigarren ataletako guztiak.
- Eskubide sozial guztiak edo baten bat etetea, hiru urtera arteko epe batez.
- Zehapen ekonomikoa, zehazki bazkide mota horrentzat indarrean dagoen nahitaezko ekarpenaren % 70aren baliokidea.
- Kanporatzea.

20. artikulua. Zehapen prozedura

Bat. Bazkideak hutsegite sozialengatik zehatzeko, dagokion espedienteak hasiko da beti, arau hauen arabera:

- a) Hutsegite arinetan, Kontseilu Errektoreak, hutsegite gisa har daitezkeen egitate edo ez-egite batzuen berri duenean, bere kideen artean zehapen espedientearen instrukzioa egingo duen pertsona bat izendatuko du. Pertsona horrek, hala badagokio, kargu orri bat egingo du erruztatutako bazkidearen aurka, eta horri idatziz jakinaraziko zaio hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa eta dagokion zehapen proposamena, eta, aldi berean, bazkideak deskargu orria egin ahal izango du, instruktorearen jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean. Agiri hori idatziz aurkeztu beharko zaio Kontseilu Errektoreari. Une horretatik aurrera, Kontseilu Errektoreak, gehienez ere hilabeteko epean, hutsegitearen kalifikazioari eta behin betiko zehapenari buruzko erabakia hartu beharko du, baina, nolanahi ere, eta nahitaez, aldeztu aurretik entzunaldia emango dio interesdunari, eta, ondoren, interesduna ez bada agertzen aurretiazko entzunaldira Kontseilu Errektoreak horretarako zitazioa egiten dionean, orduan erabakiko du hutsegitearen kalifikazioari eta behin betiko zehapenari buruz kooperatibaren azken instantzian, hargatik eragotzi gabe Euskadiko Kooperatiben Legearen 52. artikuluan ezarritako izapide prozesalaren bidez aurkaratzea.

b) Hutsegite larri edo oso larrietan, prozedura hutsegite arinetarako aurreikusitakoaren berdin-berdina da, salbu eta Kontseilu Errektorearen zehapen erabakia aurkaratu daitekeela, eta ez duela kooperatiba barneko bidea agortzen. Bazkideak errekurtsua jar dezake Kontseilu Errektorearen zehapen erabakiaren aurka Errekurtso Batzordean hogeita hamar eguneko epean zehazpena jakinarazi zenetik. Errekurtso Batzordearen erabakiak kooperatibaren barne bidea agortzen du.

Bi. Arau hauste arinak hilabeteren buruan preskribatuko dira, larriak bi hilabeteren buruan eta oso larriak hiru hilabetera.

Arau hausteak preskribatzeko epea arau haustea egin den egunetik hasiko da zenbatzen. Arau hausteak jarraian edo etengabe egiten badira, epea arau haustearen jokabidea amaitu zenetik hasiko da. Preskripzioa eten egingo da zehapen prozedura bat hasiz gero, interesdunari jakinarazita, eta preskripzio epea berriz hasiko da ustezko erantzuleari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik zehapen espedientea geldirik badago, ebazpenik eman edo jakinarazi gabe, lau hilabeteen baino gehiagoan.

Hiru. Zehapen oro betearazi egin behar da, espedientatutako bazkideari dagokion errekurtsua aurkezteko epea errekurtsorik aurkeztu gabe amaitu eta hurrengo egunetik hasita, edo dagokion erabaki apelaezina hartu eta hurrengo egunetik hasita.

Lau. Kanporatze kasuan izan ezik, Kontseilu Errektoreak, interesdunek eskatuta, ezarritako zehapenetatik bete ez den zatia ezereztu dezake.

21. artikulua. Kanporatzea

Bat. Kontseilu Errektoreak bazkide bat kanporatzea erabaki dezakete soilik estatutuetan jasotako hutsegite oso larriagatik, horretarako hasitako espedientearen bidez eta interesdunari aurretik entzun ondoren.

Bi. Bazkideak errekurtsua aurkeztu ahal izango du kanporatzeko erabakiaren aurka, Errekurtso Batzordean erabakia jakinarazi eta hogeita hamar eguneko epean.

Errekurtsua Errekurtso Batzordean ebatzi beharko da, interesdunari entzunda, errekurtsua aurkeztu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean. Epe hori igarotzen bada ebatzi eta jakinarazi gabe, errekurtsua baietsi egin dela ulertuko da.

Hiru. Kontseilu Errektorearen erabakia betearaztekoa izango da Errekurtso Batzordearen berrespena jakinarazten denetik edo errekurtsua jartzeko epea amaitzen denetik aurrera.

- Lau.** Errekurtso Batzordeak kanporatzeko erabakia berretsi ondoren, bi hilabeteko epean aurkaratu ahal izango da, jakinarazten denetik zenbatzen hasita, Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen, abenduaren 20koaren, 41. artikuluan araututako bide prozesaletik.

IV. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA

22. artikulua. Organo sozialak

- Bat.** Kooperatibaren organo sozialak honako hauek dira, eta bakoitza bere eskumenen titularra izango da eskusiboki:
- Batzar orokorra
 - Kontseilu errektorea
 - Zaintza Batzordea
 - Errekurtso Batzordea
- Bi.** Kooperatibaren kudeaketa arruntari dagozkion gaiak zuzendariaren eskumenekoak dira. Horretarako, zuzendariak, Kontseilu Errektorearen izenean, kooperatibari interesatzen zaizkion egintza guztiak egingo ditu, eman zaizkion ahalmen eta ahalen barruan.
- Hiru.** Zuzendariak zuzendaritza kontseilu baten laguntza eta aholkularitza izango ditu, eta horren osaera, ahalmenak eta funtzionamendua kooperatibaren barne araudian arautuko dira.
- Zuzendaritza kontseilua kooperatibaren eginkizunak koordinatzeko eta zuzendari kudeatzailearen aholkularitzarako organo gisa definitzen da, eta eginkizun nagusia kooperatibaren garapena aurreikusi, planifikatu eta sustatzea da, baita haren kudeaketa hobetzea ere.
- Lau.** Kooperatibak bere operatibitateko eta bere garapenerako komenigarritzat jotzen dituen beste organo sortu ahal izango ditu, kasu bakoitzean erabakitzen diren ahalmenekin. Ahalmen horiek ezin dira izan kooperatibak beharrezkoak dituen organoei legeak berariaz esleitzen dizkienak.
- Bost.** Kooperatibako organoak Legean xedatutakoaren arabera arautuko dira, Estatutu Sozialekin eta Barne Araudiarekin osatuta, eta, dagokionean, balioz onartzen den erabaki ororen bidez, euren funtzionamendua modu egokian antolatzeke.
- Sei.** Kooperatiba saiatuko da bere organoetan bazkideen ordezkaritza orekatua egoten, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako neurriak ezartzea sustatuko du, bereziki bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa kontziliatzera bideratutakoak.

23. artikulua. Batzar Orokorra

Bat. Batzar Orokorra bazkideen bilkura da, bere eskumeneko gaien gainean eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko eratua.

Batzar Orokorraren erabakiek hartzen diren egunetik aurrera sortzen dituzte ondorioak, eta bazkide guztiak behartzen dituzte.

Bi. Erabaki hauek hartzea dagokio eskusiboki Batzar Orokorrari:

- a) Kontseilu Errektorea osatzen duten pertsonak, Zaintza Batzordea osatzen duten pertsonak eta likidatzaileak izendatzea eta ezeztatzea, isilpeko bozketan, baita, hala badagokio, Errekurtso Batzordea osatzen dutenak ere. Eta horien aurkako erantzukizun akzioa gauzatzea.
- b) Kontu auditoreen izendapena eta kargugabetzea, kausa justua badago.
- c) Kudeaketa soziala aztertzea, urteko kontuak onartzea eta soberakinak banatzea edo galerak egozte.
- d) Nahitaezkoa ekarpen berriak, Kapital Sozialera egindako ekarpenen interesa eta sarrerako edo aldizkako kuoten zenbatekoak finkatzea.
- e) Obligazioen, partaidetza tituluen eta partaidetza berezien jaulkipena edo Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legeak, abenduaren 20koak, 68. artikuluan xedatutako beste finantzaketa modu batzuk erabakitzea, lege horren 62.2 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.
- f) Estatutu Sozialen aldaketa.
- g) Bigarren edo maila handiagoko kooperatibak, kooperatiba taldeak eta antzeko beste entitate batzuk sortzea, baita horietara atxikitzea edo horietatik bereiztea ere.
- h) Sozietatearen bat egitea, zatitzea, transformatzea eta desagitea.
- i) Kooperatibaren ekonomia, antolamendu edo funtzioen egituraren funtsezko aldaketa dakarten erabakiak onartzea. Honako hauek hartuko dira halakotzat:
 - Kooperatiba irakaskuntza sare publikoan sartzea.
 - Kooperatibaren aktibo eta pasibo guztiak besterentzea.
 - Xede soziala aldatzea, horrekin ez badira errespetatzen eta zaintzen kooperatiba sortu zeneko xedeak eta jarduerak.
 - Kooperatiba mota aldatzea.
- j) Kooperatibaren barne araudia onartzea edo aldatzea, halakorik

badago.

k) Legeak ezartzen dituen gainerako erabakiak.

Hiru. Batzar Orokorrak kooperatibarentzat interesgarriak diren gai guztiez eztabaidatu ahal izango du, eta beste organo sozial baten eskumen eskusibokoak ez diren gaietan baino ezingo ditu derrigorrezko erabakiak hartu.

Lau. Artikulu honen edo lege arauaren arabera Batzar Orokorrari dagozkion eskumenak ezin dira beste inoren esku utzi, artikulu honetako h) ataleko bigarren puntuan kooperatiba integratiorako prozesuetarako aurreikusitakoa izan ezik.

24. artikulua. Batzar Orokorraren deia.

Bat. Batzar Orokorra Ohikoa edo Ezohikoa izan daiteke, eta Kontseilu Errektoreak deituko du.

Bi. Ohiko Batzar Orokorra nahitaez bilduko da sozietatearen ekitaldia itxi eta hurrengo lehen sei hilabeteen barruan. Epe hori igaro, eta ez bada ez Batzarrik ez deialdirik egin, edozein bazkidek, notario bidez edo bestelako edozein bide sinesgarri erabiliz, Kontseilu Errektorea errekeritu ahal izango du Batzarrerako deia egin dezala. Kontseilu Errektoreak errekerimendua jaso eta hortik aurrerako hamabost eguneko epean deirik egiten ez badu, bazkideak batzarrerako deia egin dezala eskatu ahal izango dio sozietatearen egoitza dagoen lekuko Merkataritzako Epaitegiari, zeinak, deia egin, eta erabakiko baitu nor izango den Batzarreko burua. Batzar Orokorrak horrek, epe kanpo deituta ere, ez du ohiko izaera galduko.

Hiru. Ezohiko Batzar Orokorra edozein unetan elkartuko da, Kontseilu Errektorearen beraren ekimenez, Zaintza Batzordeak eskatuta, halakorik badago, edo gutxienez boto guztien ehuneko hogeitaz ordezkatzen duten bazkideek eskatuta, Kontseilu Errektoreari errekerimendu frogagarria eginez, eztabaidatu beharreko gai eta proposamenen gai zerrendarekin. Eskaera jaso eta hurrengo hogeita hamar egunetan Batzar Orokorra deitzen ez bada, deia epai bidez egiteko eskatu ahal izango da, aurreko puntuan aurreikusitakoaren arabera.

Lau. Boto sozialen %10 baino gehiago ordezkatzen duen bazkideen kopuru batek, deialdia egin eta hurrengo bost egunetan Kontseilu Errektoreari zuzendutako idazki baten bidez, gai bat edo gehiago gai zerrendan sartzeko eskatu ahal izango du. Kontseilu Errektoreak gai horiek kontuan hartu eta gai zerrenda berria legeak eskatzen duen

publizitatearekin argitaratu beharko du, Batzarra egin baino lau egun lehenago gutxienez, eta Batzarraren bilera eguna ezin izango da inola ere atzeratu.

Bost. Batzar Orokorra biltzeko deialdia, nahitaez, sozietatearen egoitzan eta kooperatibak bere jarduera garatzen duen zentro guztietan jarriko da jendaurrean.

Kooperatibak bostehun bazkide baino gehiago baditu, egoitza sozialaren lurralde historikoan zabalkunde handia duen egunkari batean ere -idatzizkoa edo digitala- iragarriko da deialdia.

Kooperatibak webgune korporatibo bat badu, sozietatearen webgunean argitaratutako iragarki baten bidez deituko da Batzar Orokorra, baldin eta web orri hori sortzea Batzar Orokorrak erabaki badu eta sortzeko erabakia Euskadiko Kooperatiben Erregistroan kooperatibarentzat irekitako orrian jasota badago. Kasu horretan, ez da aplikatzekoa izango aurreko leerroaldean ezarritako betebeharra.

Alerta sistema bat ezartzen da publizitaterako mekanismoa osagarri gisa, ez derrigorrezkoa, kooperatibaren webgunean, kooperatibako bazkideen “gune pribatuan” edo “intranetean”; horren sarbidea bakarra eta eskusiboa izango da bazkide bakoitzarentzat, eta, horretarako, berak jo beharko du Kontseilu Errektorera, sartzeko gakoak eskatzeko.

Sei. Deialdia publiko egingo da, egingo den data baino gutxienez hamar egun eta gehienez hirurogei egun lehenago.

Zazpi. Deialdian zehaztu beharko da, gutxienez, zein egunetan, zein ordutan eta non izango den bilera, lehenengo, bigarren eta hirugarren deialdian, horien artean ordu erdiko tartea utzi beharko da gutxienez, eta argi eta zehatz jaso beharko da, baita ere, Gai Zerrenda osatzen duten gaiak.

Kooperatiba saiaturiko da batzarra lehen edo bigarren deialdian egiten, baina, kooperatibak aurreikusten badu lehen eta bigarren deialdirako legez behar den quorumerak ez dela iritsiko, hirugarren deialdi bat sartu ahal izango du, eta hori egin arte ordu erdi igaro beharko da bigarren deialditik.

Gainera, deialdiaren iragarkian jasoko da bazkide guztiek eskubidea dutela sozietatearen egoitzan eta sozietatearen Intranetean -halakorik balego- gai zerrendako puntuei dagokien dokumentazioa eta, hala badagokio, Zaintza Batzordearen txostena aztertzeko.

Zortzi. Artikulu honetako aurreko ataletan ezarritakoa eragotzi gabe, deialdi gabeko batzarra osatu ahal izango da balioz, baldin eta bazkide guztiek

bilduta edo ordezkatuta egonik aho batez erabakitzen badute Batzar Orokor Unibertsala eratzea. Horretarako, denek onartu eta izenpetu behar dute gai zerrenda eta bertaratutakoen zerrenda, nahiz eta gero ez duten bazkide guztiek Batzarrean geratu beharrik izango.

25. artikulua. Batzar Orokorren funtzionamendua

Bat. Batzar orokorra, unibertsala ez bada behintzat, sozietatearen egoitza dagoen herrian egin beharko da, edo Kontseilu Errektoreak erabaki duen beste edozein lekutan, betiere hori justifikatzen duen arrazoiren bat dagoenean.

Bi. Batzar Orokorra baliozkoa izango da, lehen deialdian, baldin eta bildutako edo ordezkatutako bazkideek botoen gehiengoa bertan edo ordezkatuta badago; eta bigarren deialdian, baldin eta bildutakoak edo ordezkatutakoak botoen %10era edo ehun bitora iristen badira, eta hirugarren deialdian edozein delarik ere bertan edo ordezkatuta dauden botoen kopurua.

Batzar Orokorrerako deialdia egitea erabaki zen datarako bazkide zirenek izango dute Batzarrerara joateko eskubidea.

Hiru. Ordezkaritza.

a) Parte hartzea pertsonala izango da, eta ez da ordezkaritzarik egongo, salbu eta bazkideak Batzar Orokorrean ordezkatuta badaude jarduteko gaitasun osoa duen ezkontide edo beste senide baten, lehen ahaidetasun mailara arte, edo legezko tutorearen bidez.

Eskatuko da idatzizko ahal berezia batzarraren saio bakoitzerako.

b) Bazkide bat, idatzizko baimen bidez, beste bazkide batek ordezkatzake izaera bereziarekin Batzar Orokor bakoitzerako.

Batzar Unibertsalaren kasuan, aurreikusitako Gai Zerrenda ere jaso beharko da ordezkari gisa parte hartzen dela egiaztatzen den idatzian.

Bazkideek ezin izango dute, bakoitzak bereaz gainera, bi ordezkotza baino gehiago izan. Ordezkaritza ezeztatu ahal izango da. Ordezkaritza beste norbaiti eman dion pertsona Batzar Orokorreara joateak ordezkaritza ezeztatze indarra izango du.

Lau. Batzar Orokorreko lehendakaria Kontseilu Errektoreko lehendakaria izango da; hori ezin bada izan, lehendakariordea izango da, eta azken hori ere ezin bada izan, Batzarrak hautatutako bazkidea izango da.

Lehendakariari dagokio eztabaidak zuzentzea, desbideratzerik egon ez dadin zaintzea, eguneko gai zerrendan sartzen ez diren gaien inguruan erabakirik har ez dadin zaintzea, salbu eta Legeak berariaz baimentzen dituen gaiak; gainera, Batzarraren ordenari eustea eta legezko formalitateak betetzen direla zaintzea dagokio.

Idazkaria Kontseilu Errektoreko idazkaria izango da, edo, bestela, Batzar Orokorrek berariaz aukeratzen duena.

Bost. Gai Zerrendan ez dauden gaietarako erabakiak baliogabeak izango dira, salbu eta legeak berariaz baimentzen dituenak.

Sei. Kontseilu Errektorea osatzen duten pertsonak Batzar Orokorretara joan beharko dute. Zuzendariak ere joan beharko dute, eta, beharrezkotzat jotzen bada, bazkide ez diren beste pertsona batzuk ere bai, sozietatearen gaien martxa onaren gaineko interesa badute, betiere Kontseilu Errektoreak deitu edo gonbidatu baditu.

Batzar Orokorrek beste edozein pertsona egoteko baimena eman ahal izango du.

Zazpi. Saioaren akta idazkariak idatziko du, datu hauek adierazita: bileraren eguna eta lekua, deialdia noiz eta zein modutan egin den eta deialdiaren testu osoa, zenbat bazkide bildu diren, pertsonalki edo ordezkaturik, lehenengo deialdia, bigarrena edo hirugarrena den, eztabaidatutako gaien laburpena, aktan jaso daitezela eskatutako parte hartzeak, hartutako erabakien edukia, bozketen emaitza, eta aktaren onespena, bilera bukatu ondoren onartzen bada.

Bertaratutako zerrenda aktaren hasieran agertuko da, edo eranskin baten bidez erantsiko zaio aktari, idazkariak sinatuta eta lehendakariaren oniritziarekin.

Akta Batzarrak berak onartu ahal izango du, Batzarra egin ondoren, edo, bestela, lehendakariak eta Batzarrak berak izendatutako bi kidek onartuko dute, idazkariarekin batera sinatuta, hamabost eguneko epean.

Batzar Orokorreko joandako edozeinek eskubidea izango du aktaren edo hartutako erabakien testu osoaren ziurtapenak eskatzeko. Ziurtagiria egiten den egunean idazkari denak emango ditu ziurtapenok, lehendakariaren oniritziarekin.

Zortzi. Erabakiek hartu diren momentutik aurrera izango dituzte ondorioak.

Bederatzi. Inskribatzekoak diren erabakiak Euskadiko Kooperatiben

Erregistroan aurkeztuko dira, akta onetsi eta hogeita hamar eguneko epean.

26. artikulua. Boto eskubidea

- Bat.** Bazkideek boto bana edukiko dute.
- Nolanahi ere, edozein arrazoi dela-eta Batzarraren deialdiaren egunean bazkide laguntzaileen kopurua boto kopuru osoaren %33 baino handiagoa bada, haien botoen balio osoa %33 horretara mugatuko da, eta bazkide bakoitzaren balioa esleitutako botoen ehunekoaren eta bazkide kopuruaren arteko zatiketa eginda aterako da.
- Bi.** Bazkidea ezin izango da bere boto eskubideaz baliatu interes gatazka dagoen kasu hauetan:
- a) hartu beharreko erabakiak zuzenean eta esklusiboki eragiten dionean, espedientatutako gehiengoaren parte denean izan ezik, eta
 - b) Kooperatibak gauzatutako erantzukizun ekintza baten subjektua bada.
- Hiru.** Bazkide laguntzaileen botoen guztizko kopurua ezin izango da, inola ere, kooperatibako boto guztien erdira iritsi.

27. artikulua. Gehiengoak

- Bat.** Batzar Orokorrean erabakiak hartzeko, baliozkotasunez emandako botoen erdia baino gehiago beharko da. Ondorio horietarako, ez dira zenbatuko ez boto zuriak ez abstentzioak. Dena den, salbuespen izango dira gutxienez Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legean, abenduaren 20koan, edo estatutuetan gehiengo indartuak eskatzen diren kasuak.
- Bi.** Kooperatibaren transformazioa, bat egitea, zatitzea, irakaskuntza sare publikoan integratzea edo desagitea erabakitzeko, Batzarrean daudenen edo ordezkaturakoen baliozko botoen bi hereneko gehiengoa beharko da, betiere bertaratu eta ordezkaturakoen boto kopurua kooperatibako boto guztien %75 baino txikiagoa baldin bada.
- Hiru.** Kontseilu Errektoreko kideak kargugabetzea erabakitzeko, ez bada gai zerrendan agertzen, bertaratutako eta ordezkaturakoen botoen bi herenen aldeko botoa beharko da.

28. artikulua. Batzar orokorraren erabakiak aurkaratzea

- Bat.** Batzar Orokorrean erabakiak aurkaratu ahal izango dira baldin eta Legearen nahiz Estatutuen aurkakoak badira edo kooperatibaren kaltetan hartu badira bazkide baten edo gehiagoren zein hirugarrenen

mesedetan.

Ez da egokia izango ondorioz gabe utzi den edo beste akordio batek baliozkotasunez ordeztu duen akordio bat aurkaratzea.

- Bi.** Aurkaratze akzioa honako hauek egikaritu ahal izango dute: bazkideek, Kontseilu Errektoreko kideek, Zaintza Batzordeko kideek, eta interes legitimoa duen bazkide ez den edozein hirugarrenen; aukera hori urtebetean iraungiko da, salbu eta erabaki horien karia edo edukia ordena publikoaren aurkakoak direnean.
- Hiru.** Artikulu honetan xedatutako iraungitze epeak akordioa hartzen den egunetik aurrera zenbatuko dira, edo, inskriba badaiteke, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatzen den egunetik aurrera.
- Lau.** Oro har, aurkaratze prozedura Kapital Sozietateei buruzko Legean ezarritako arauetara egokituko da, salbuespen honekin: demanda idazkian aurkaratutako erabakia eteteko eskatzen bada, eskatzen duena Zaintza Batzordea edo gutxienez boto kopuruaren %10 ordezkatzeko bazkideak izan beharko da, 50 bazkide baino gehiagoko kooperatibetan, %15 10 eta 50 bazkide arteko kooperatibetan, eta %20 10 bazkide baino gutxiagoko kooperatibetan.
- Bost.** Aurkaratze akzioa baiesten duen epaiak ondorioak izango ditu bazkide guztien aurrean, baina ez die eragingo fede oneko bazkide ez diren hirugarrenen aurkaratutako erabakiaren ondorioz eskuratutako eskubideei. Aurkaratutako erabakia Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta badago, epaiak inskripzio horren ezereztea aginduko du.

29. artikulua. Kontseilu Errektorea. Izaera eta eskumenak

- Bat.** Kontseilu Errektorea kide anitzeko organo bat da, eta berari dagokio, eskusiboki, kooperatibaren kudeaketa eta ordezkaritza. Gainera, Legeak edo Estatutu hauek beste organo sozial batzuei berariaz erreserbatzen ez dizkieten ahalmen guztiak baliatzen ditu. Kontseilu Errektoreko kideek ez dute ordainsari berezirik hartuko beren karguengatik.
- Bi.** Kontseilu Errektorearen eskumena dira aginpide zehatz hauek:
- Bazkideen onarpena eta baja erabakitzea, estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.
 - Kooperatiba ordezkatzeko, delegatzeko ahalarekin, mota guztietako egintza eta kontratueta, eta bere bereziki partaidetza duen erakundeetako organo sozialetan.

- c) Zuzendaria izendatzea eta bere proposamenez baita departamentuetako zuzendariak ere, halaber horiek kargugabetzea eta euren ahalmenak, betebeharrak eta lansariak finkatzea. Hala balegokio, euren aurkako erantzukizun ekintzak erabiltzea.
- d) Kooperatibaren funtzionamendua antolatzea, zuzentzea, kudeatzea eta ikuskatzea, eta Batzar Orokorrari urteko gestio planak eta luzera begirako plan estrategikoak aurkeztea, kooperatibaren politika proposamenekin eta estrategia orokorrekin, behin Kontseilu Errektoreak onartu eta gero.
- e) Kontseilariak karguei uko egiteari, hutsik geratu diren postuak betetzeari eta, oro har, organoaren beraren barne funtzionamenduaren arauketari buruz dagokiona erabakitzea, eta dagozkion eta/edo bere eskumenekoak diren erabakiak deuseztatzeko ekintzak gauzatzea.
- f) Batzar Orokorrari egokitzat jotzen dituen estatutu sozialen eta kooperatibaren barne araudiaren aldaketak proposatzea.
- g) Estatutuetako eta araudiko betebeharrak egoki aplikatzeko behar diren edo Batzar Orokorraren erabakiak gauzatzeko eskatzen diren araudi funtzionalak onartzea.
- h) Helburu soziala betetzeko beharrezko edo komenigarri izan litezkeen egintza eta kontratuak egitea: ondasun higiezinak eskuratu edo besterentzea, eskubide errealeen eraketa- hipotekena eta errentamenduko berezia barne-, eta Estatutu hauek kooperatibari baimentzen dizkioten negozio eta eragiketa mota guztiak ebaztea.
- i) Kooperatibari komenigarri dakizkiokeen eta Batzar Orokorrari erreserbatuak ez dauden kreditu, mailegu edo sinadura bermeko operazioak erabakitzea.
- j) Erakunde publiko eta pribatuen aurrean abalak ematea, baita edozein titulu mota erosi, saldu, harpidetu eta gordailatzea ere; tituluak izan daitezke zor publikoarenak, balore higigarri edo higiezinak, betiere zuzenbidean onartuak, eta egoki iruditzen zaion forman afektatu ere egin ditzake.
- k) Ekarpenak harpidetzeko eta bonuak eta obligazioak jaulkitzeko beharrezko dena erabakitzea, Batzar Orokorrak hartutako akordioaren arabera.
- l) Batzar Orokorraren erabakien arabera, dauden funtsen inbertsioa zehaztea, aurrekontuak egitea, gastuak baimentzea eta kooperatibaren ahalduak eta ordezkariak izendatzea, bakoitzari kasu bakoitzean egoki iruditzen zaizkion ahalmenak emanez.

- m) Urtero Ohiko Batzar Orokorrari Urteko Kontuak aurkeztea eta, hala dagokionean, soberakin garbien banaketa edo galeren egozketa proposatzea, halaber proposatzea bazkide berrientzako hasierako nahitaezko ekarpenak, aldiroko kuotak eta kuota bereziak zehaztea.
- n) Batzar Nagusien deialdia egitea, horiek prozesatzean sortzen diren arazoak ebaztea eta erabakiak betearaztea.
- o) Epaitegien eta Auzitegi arrunt edo berezien aurrean eta Estatuko, Autonomia Erkidegoetako, Probintziako edo Udalerriko Administrazioetako bulego, agintaritza, korporazio edo erakundeen aurrean kooperatibari dagozkion eskubideak edo ekintzak egikaritzeari buruz komenigarria dela irizten diona erabakitzea. Eta baita helegite arrunt eta bereziak jartzeari dagokionean ere, ordezkariak, prokuradoreak edo letratuak izendatuz, kooperatibaren ordezkaritza eta defentsa egin dezaten eragin horietarako. Izendatutakoei behar diren ahalmenak emango zaizkie, beharrezko den eran, kontziliazioetan, espedienteetan, auzietan, erreklamazioetan, helegiteetan edo edozein motatako jardunetarako eta prozeduraren edozein egoeratan adostasuna agertzeko edo atzera egiteko, prozedura eteteko eskatzeko eta beharrezko den guztirako, baita epai kontuak zabaltasun osoz onartzeko ere.
- p) Funtz eta ondasun sozialak erabiltzea, erreklamatzeko, jasotzea eta kobratzea, bai partikularrengandik, bai bulego publikoetatik, Kutxa Orokorrean gordailuak eratuz edo erretiratuz, eta interes sozialei komeni zaizkien lekuetan. Bankuko kontu korrontek edo gordailuak, eskudiruzkoak, kredituzkoak nahiz baloreetakoak eratzea eta horietatik eskudiru edo baloreak ateratzea. Eta oro har entitate nazional edo atzeritarrekin, baita Espainiako Bankuan ere, era guztietako eragiketak egitea. Korrespontsalen esku dauden kooperatibaren funts eta ondasunak erabiltzea. Kanbio letrak, agindurako ordaindukoak eta merkataritzako eta igorpeneko gainerako efektuak libratu, endosatu, abala eman, onartu eta kexatu onarpen edo ordainketa faltagatik eta segurtasun gehiago izateko.
- q) Pertsona jakinei ahalmenak ematea, helburu zehatzetarako edo negozio sozialaren adar zehatz batzuk zuzentzeko.
- r) Dagokionean, Batzar Orokorrari proposatzea kooperatiba konkurtsoan deklaratzeko eta desegitea, eta prozesu bakoitzaren faseak betetzea, bere eskumenen barruan.
- s) Estatutu hauek interpretatzean sortzen diren zalantzak argitzea eta

egingo den lehen Batzar Orokorrari jakinaraztea.

t) Estatutu hauetan bereziki eman zaizkionak.

u) Kooperatibarentzat sinadura elektronikoa eskatzea eta haren izenean eta hura ordeztuz erabiltzea, erabil daitezkeen ekitaldi guztietarako.

Hiru. Kontseilu Errektorearen eskumenen zerrenda hau azalpenezkoa baino ez da, eta ez ditu dituen ahalmenak mugatzen, berariaz Legeak eskusiboki kooperatibaren beste organo batzuen esku utzi den guztian izan ezik.

Lau. Kontseilu Errektoreak ahalorde orokorrak eman eta errebokatu ahal izango dizkio zuzendaritzako arduradun bati edo batzuei, eta ahalorde eskrituran emandako ahalmenak izango ditu, kooperatibaren ohiko trafikoari buruzkoak bakarrik. Izendapena, ahalordea eta baliogabetzea Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko dira. Kontseilu Errektoreak ahalorde bereziak ere eman ahal izango dizkio edozein pertsonari.

30. artikulua. Kontseilu Errektorearen osaera eta berritzea

Bat. Kontseilu Errektoreak 12 kide izango ditu eta bere kideen artean hautatuko ditu lehendakari, lehendakariorde, idazkari eta diruzain karguak.

Hala ere, kooperatibak aukeran izango du idazkari kargua bazkide edo kontseilari ez den pertsona batek betetzea. Pertsona horrek ez du izango hitzik ez botorik Kontseilu Errektorean.

Kontseilu Errektoreko kideen herena bazkide ez diren pertsonen artean aukeratuko dira.

Bi. Kontseilu Errektoreko kideak Batzar Orokorrak aukeratuko ditu, isilpeko bozketaren bitartez, balioz emandako boto kopuru handienarekin. Kontseilu Errektoreko kide izateko aukeratzen diren pertsonak izendatu behar dituzte karguak, egiten duten lehen bileran bazkide diren kideen artean.

Izendapenarekin batera, 3 ordezeko aukeratuko dira.

Kooperatiba saiatuko da organo honetan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua izan dadin, eta oreka hori lortzen lagundu dezaten neurriak sustatuko ditu, oreka ezin bete duenean.

Hiru. Kontseilu Errektorea 3 urtean behin aldi berean berrituko da.

Hauteskunde guztietan zehaztuko da kontseilari bakoitzaren agintaldia zenbat denborakoa izango den.

Kontseilu Errektoreko kideren baten kargua behin betiko hutsik

geratzen denean ordezkotatik lehenak hartuko du kargua berehala, Estatutuen arabera ordezkatuari geratzen zaion denborarako.

Lehendakari kargua hutsik geratuz gero, lehendakariordeak hartuko ditu bere gain aurrekoaren egitekoak, lehenengo Batzarra egin arte, han egingo baita aukeraketa.

Diruzain kargua hutsik geratuz gero, lehendakariak hartuko ditu bere gain aurrekoaren egitekoak, lehenengo Batzarra egin arte, han egingo baita aukeraketa.

Lehendakari edo lehendakariorde karguak biak aldi berean gelditzen badira hutsik, urte gehien dituen kontseilariak bere gain hartuko ditu berehala lehendakariaren egitekoak, eta Batzar Orokorrerako deia egingo da, hurrengo hogeita hamar eguneko epean, eta bertan aukeraketa egingo da.

Prozedura berdina jarraituko da Kontseilu Errektorean gelditzen diren kideekin, horien kopurua ez bada nahikoa organoa baliozkotasunez osatzeko eta ez badaude ordezkotatik hutsik dauden karguak betetzeko.

Ordezkorik ez badago, kontseilariak aukeratuak izan diren epean karguak hutsik gelditzen badira gutxiengoan, Kontseilu Errektoreak bazkideen artean izenda dezake kargu hutsa beteko duen pertsona, lehen Batzar Orokorra bildu bitartean.

Kontseilari batek karguari uko egitea arrazoitu egin beharko da eta idatziz jakinaraziko zaio Kontseilu Errektoreari, eta horrek zehaztu beharko du ea uko egiteko erabilitako arrazoiak justifikatua den ala ez eta interesdunari idatziz jakinarazi behar zaio erabakia.

Kontseilari baten uko egitearen inguruan Kontseilu Errektoreak erabakitako kalifikazioa Errekurtso Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango da, nahitaezko bajarentzako jarritako baldintza eta epe berdinetan.

Uko egin duen kontseilariak bere jakinarazpenean finkaturiko datan izango ditu ondorioak uko egiteak; data hori ezin izango da izan jakinarazpena baino lehenagokoa.

Kooperatibak uste badu uko egitea ez dagoela justifikatuta, aukera izango du, hala badagokio, kontseilariari dagokion galeren kalte-ordaina exijitzeko.

Lau. Hauek ezingo dira Kontseilu Errektoreko kideak izan:

- a) Emantzipatu gabeko adingabeak, epaiketa bidez ezgaituak, Konkurtso Legearen arabera desgaituak, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntzaldia amaitu arte; askatasunaren, ondarearen edo ordena sozioekonomikoaren kontrako

delituengatik kondenatuak, segurtasun kolektiboaren kontrako delituengatik kondenatuak, Justizia Administrazioaren kontrako delituengatik kondenatuak edo edozein faltsukeriagatik kondenatuak, baita haien kargua dela-eta merkataritzan ezin jardun dezaketenak ere.

- b) Funtzionarioak eta Administrazio publikoaren zerbitzuko langileak, dena delako sozietatearen berezko jarduerekin zerikusia duten funtzioak baldin badituzte, epaile eta magistratuak, eta legezko bateraezintasun batek ukitutako gainerako pertsonak.
- c) Bere edo besteren kontura arituz kooperatibarekin lehiari dauden jarduerak egiten dituztenak, edo modu batera edo bestera kooperatibaren interesen aurkako interesak dituztenak, hargatik eragotzi gabe Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen, abenduaren 20koaren, 49.4 artikuluan xedaturikoa.
- d) Zaintza Batzordeko eta Errekurtso Batzordeko kideak.

Bost. Batzar orokorrean, Kontseilu Errektoreko kideak kargutik kentzea erabaki ahal izango da, gai zerrendan halakorik agertzen ez bada ere. Gai hori gai zerrendan ageri ez denean, kargutik kentzearen alde batzarrean dauden botoen eta ordezkaturikoen bi herenek bozkatu beharko dute.

Kontseilariren bat kargutik kentzen baldin bada, kontseilari berriak hautatu beharko dira Batzar Orokorraren saio berean, gai zerrendan halakorik agertzen ez bada ere.

Sei. Kontseilariak, edozein arrazoiengatik, kargua uzteak ondorioak izango ditu hirugarrenen aurrean, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatzen den egunetik aurrera.

31. artikulua. Kontseilu Errektorearen funtzionamendua

Bat. Kontseilu Errektorea gutxienez hilabetean behin elkartuko da, edo gutxienez Kontseilu Errektoreko 6 pertsonak modu arrazoituan ezohiko deialdian eskatuta, eta bileretan bere eskumeneko gai guztiak aztertu eta erabaki ahal izango dira.

Bi. Kontseilu Errektorea biltzeko deia lehendakariak egingo du, idatziz, organo horretako kide bakoitzari zuzenduta.

Lehendakariak zazpi eguneko epean ez badio erantzuten aurreko atalean aurreikusitako ezohiko deialdiaren eskaerari, eskari arrazoitua egin duenak deitu ahal izango du Kontseilu Errektorea, betiere gutxienez Kontseilu Errektoreko kide kopuruaren erdia baino gehiagoren atxikimendua badu.

Hiru. Kontseilu Errektorea baliotasunez eratzeko bilerara gutxienez bere

kideen erdiak baino gehiagok joan beharko du. Zuzenean joan beharko da bileretara, eta ezingo da asistentzia ordezkatu, eta erabakiak bertaratutako eta urrundik parte hartzen ari diren kontseiluko kideen gehiengo soilez hartuko dira. Boto zuriak eta abstentzioak ez dira zenbatuko. Kontseiluko kide bakoitzak boto bat izango du.

Kontseilu Errektorearen parte hartzea aurrez aurrekoa izango da, hala ere, parte hartzea bideokonferentziaz edo irudiaren eta soinuaren bi noranzko eta aldibereko komunikazio ahalbidetu eta ikusizko, entzumenezko eta ahozko interakzioa ahalbidetzen duen edo antzeko sistema baten bidez parte hartu ahal izango da, beti ere, Kontseilu Errektoreak aurretiaz onartu badu, bere deialdian hala adierazi badu eta bertan adierazitako aurretiazko epean kontseilariak horrela parte hartzeko eskabidea egin duten.

Lau. Bileraren akta lehendakariak eta idazkariak sinatuko dute, eta labur-labur jasoko dira eztabaidak, erabakien testua eta bozketen emaitzak, eta akta Kontseilu Errektorearen liburuan jasoko da.

Bost. Kontseilu Errektoreak bertaratutakoen bi herenen aldeko botoa beharko du, gutxienez, honako erabaki hauek hartzeko:

- a) Jarduera zentro nagusi bat edo haren zati garrantzitsu bat itxi eta lekuz aldatzea.
- b) Kooperatibaren jarduera murriztu, zabaldu edo nabarmen aldatzea.
- c) Kooperatibaren antolamenduan aldaketa garrantzitsuak egitea.
- d) Kooperatiba diren edo ez diren beste entitate batzuekin lankidetzaren harremanak egin edo azkentzea, betiere lankidetzaren harreman horiek iraunkorrak eta baliagarriak gertatzen badira kooperatibarentzat.

Sei. Kontseilu Errektorearen ahalmenen bat organo betearazleari edo kontseilari delegatu bati eskuordetzan emateko, baita kargu horiek beteko dituzten Kontseiluko kideak izendatzeko ere, Kontseilu Errektorea osatzen duten kideen bi herenen aldeko botoa beharko da baliozkoa izan dadin, eta ez du ondoriorik izango Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu arte.

32. artikulua. Kontseilu Errektoreari buruzko xedapenak

Bat. Kontseilu Errektoreko lehendakariari honako hau dagokio:

- a) Kooperatiba ordezkatzeko, Kontseilu Errektorearen izenean, gaia edozein dela ere, baita Kontseiluaren eta Batzar Orokorraren bileren buru izatea ere.
- b) Botereak ematea eta dokumentu publiko zein pribatuak sinatzea,

Batzar Orokorrak edo Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiak betez.

- c) Erabakiak hartzeko orduan Kontseilu Errektorean gerta daitezkeen berdinketak ebaztea bere botoarekin.
- d) Urgentzia izaera duten erabakiak hartzea, eta berehala horien berri ematea Kontseilu Errektoreak egiten duen lehen bileran.
- e) Kontseilu Errektoreak agintzen dizkion ekintzak, kudeaketak eta eginkizunak gauzatzea.
- f) Egiten diren ordainketak baimentzea.

Bi. Lehendakariordeak lehendakaria ordeztuko du eta lehendakariari esleitutako funtzioak egingo ditu hori ez dagoenean. Halaber, Kontseilu Errektoreak eta lehendakariak agintzen dizkion egitekoak eta kudeaketak gauzatuko ditu, bereziki lehendakariak Kontseilu Errektoreko beste kide batzuegan eskuordetzen dituen kudeaketak.

Hiru. Idazkariak funtzio hauek izango ditu:

- a) Espedienteak osatzea eta horiek behar den bezala izapidetzea.
- b) Lehendakariarentzat edo lehendakariordearentzat erreserbatuta ez dauden gutunak eta dokumentuak sinatzea.
- c) Batzar Orokorraren eta Kontseilu Errektorearen deialdiak idaztea eta abiaraztea.
- d) Aipatutako organoen saioen aktak jasotzea.
- e) . Batzar Orokorraren eta Kontseilu Errektorearen artxiboa, erregistro liburuak eta akta liburuak gordetzea.
- f) Kooperatibaren liburuen eta dokumentuen ziurtagiriak ematea, lehendakariaren oniritziarekin.
- g) Kontseilu Errektoreak esleitzen dizkionak.

Kontseilu Errektorearen bilera batean egon ezin bada, urte gutxien dituen kontseilariak ordezkatzeko du.

Lau. Diruzainak funtzio hauek izango ditu:

- a) Kooperatibako funtsak bildu eta zaintzea.
- b) Kontabilitate liburuak zaintzea.
- c) Kontseilu Errektoreak edo ahalordedunek zehaztutako kobrantzak eta ordainketak egitea eta dagokion liburuan idaztea.

- d) Kontuen onarpen aztertuko den Ohiko Batzar Orokorra egin aurretik, kontuak bazkideek eskuragarri izateko moduan izatea, aldi horretan horiek aztertzeko aukera izan dezaten.
- e) Elkartearen Kontabilitatea eramatea.
- f) Urteko aurrekontuen eta balantzeen proiektuak egitea.

33. artikulua. Kontseilu Errektoreko kideen erantzukizunak eta erantzukizun akzioa

- Bat.** Kontseilu Errektorea osatzen duten pertsonak ez dute karguagatik ordainsari berezirik jasoko, funtzio horiek doan betetzen baitira, baina horretan jarduteagatik sortzen diren gastuak konpentsatuko zaizkie.
- Bi.** Kontseilu Errektoreko kideek beren kargua bete beharko dute eta legeak eta estatutu sozialek ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte enpresaburu ordenatu baten arduraz, kontuan hartuta karguaren izaera eta horietako bakoitzari esleitutako eginkizunak; horretarako, kooperatiba behar bezala kudeatzeko eta ordezkatzeko behar diren neurriak hartuko dituzte.
- Ordezkarari zintzo baten leialtasunez beteko dute beren kargua, fede onez jardungo dute kooperatibaren interesaren mesedetan, eta beren ahalmenak ez dituzte erabiliko eman zaizkien helburuetarako ez diren beste batzuetarako.
- Hiru.** Kontseilariak, beren funtzioak amaitu eta gero ere, sekretupean gorde behar dituzte isilpeko datuak, Legeak bestelakoa ahalbidetzen edo agintzen duenean salbu.
- Lau.** Kontseilariak ez dute beren edo besteren konturako jarduerarik egingo, baldin eta kooperatibarekin lehian sartzen badira edo, beste edozein modutan, kooperatibaren interesekin gatazkarik sortzen badute.
- Gatazka egoera horietan sartuta dagoen kontseilariak ezingo du parte hartu dagokion bozketan.
- Aipaturiko baimenik gabe gauzaturiko egintzak, kontratuak eta eragiketak deuseztatu ahal izango dira, salbu eta hirugarren ez bazkide onustedunek eskuraturiko eskubideen kasuan.
- Bost.** Enpresa diskrezionalitateari atxikitako erabaki estrategikoen eta negozio erabakien arloan, ulertuko da enpresaburu onaren arretaren estandarra betetzen dela administratzailea onustez jardun denean, erabakiaren xede den gaian interes pertsonalik izan gabe, behar adina informazioarekin eta erabakitzeko prozedura egokiaren arabera jardunez.

Ez dira enpresa diskrezionalitatearen barruan jasoko kooperatibaren interesetik gatazka eragiten duten edo eragin dezaketen erabakiak.

Sei. Kontseilariak, dolo edo erruz esku hartu duten guztietan, legearen edo estatutu sozialen aurkako egintzen ondorioz edo karguari datxekion eginbeharrak ez betetzeagatik egindako kalteen erantzukizuna izango dute.

Ekintza egin edo erabaki kaltegarria egin zuen organoko kide guztiek dute erantzukizun solidarioa, salbu eta frogatzen badute erabakia hartzen edo gauzatzen ez zutela parte hartu, eta ez zekitela edo, jakitekotan, ahal zuten guztia egin zutela kaltea ekiditeko, edo, behintzat, berariaz egin zutela aurka.

Egintza edo erabaki kaltegarria Batzar Orokorrak onartu, baimendu edo berretsi izanak ez du erantzukizunetik salbuetsiko.

Zazpi. Kontseilu Errektoreko kideei erantzukizunak eskatzeko akzio soziala kooperatibak gauzatu ahal izango du, aurrez Batzar Orokorrak gehiengo soilez erabakita, nahiz eta gai zerrendan halakorik agertu ez. Batzar Orokorrak edonoiz eman ahal izango dio baiezkua nahiz ezezkoa akzioa aurrera eramateari. Batzar Orokorrak akzioa bultzatzea edo aurrera eramatea onartzea erabakiz gero, eragindako Kontseilu Errektoreko kideak kargutik kanpo geratuko dira automatikoki.

Erabakia hartu ondoko hiru hilabeteetan kooperatibak berak erantzukizuneko akziorik hasiko ez balu, edozein bazkidek egin ahal izango luke. Sozietatearen interesaren alde, botoen ehuneko hogeitazkatzen duten bazkideek ere hasi ahal izango dute erantzukizun ekintza, baldin eta kontseilariak ez badute deitzen horretarako eskaturiko Batzar Orokorra.

Zortzi. Akzioa iraungita geratuko da baldin eta bi urte igaro badira erantzukizun akzioa eragin zuten egintzak gertatu edo ezagutu zirenetik.

Bederatzi. Aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, salbu geratzen dira bazkideei eta bazkide ez diren hirugarrenei dagozkien banakako akzioak, beren interesak zuzenean kaltetzen dituzten kontseilarien egintzen ondoriozkoak.

34. artikulua. Erabakiak aurkaratzea

Bat. Kontseilu Errektorearen erabakiak aurkaratu ahal izango dira baldin eta Legearen edo estatutuen aurkakoak badira, edo bazkide baten edo batzuen edo bazkide ez diren pertsonen mesedetan, kooperatibaren interesei kalte egiten badiete.

Ez da egokia izango ondorioak gabe utzi den edo beste akordio batek baliozkotasunez ordeztu duen akordio bat aurkaratzea.

- Bi.** Aurkaratze akzioa honako hauek egikaritu ahal izango dute legez:
- a) Edozein bazkidek, horren berri izan eta 60 eguneko epean, baldin eta erabakia hartu zenetik urtebete igaro ez bada.
 - b) Kontseilu Errektoreko edo Zaintza Batzordeko kideek, erabakia hartu eta 60 eguneko epean.
- Hiru.** Aurkaratzeak zehaztuta dauden ondorioak izango ditu, eta Batzar Orokorraren erabakiak aurkaratzeko erabakitako bidetik izapidetuko da.

35. artikulua. Zuzendari nagusia. Izendapena eta kargugabetzea. Zuzendariaren betebeharrak eta erantzukizunak.

- Bat.** Kontseilu Errektoreak zuzendari bat izendatu ahal izango du kooperatibaren jarduera profesionalizatua kudeatzeko.
- Bi.** Zuzendariaren izendapena eta funtzioak arau hauen menpe egongo dira:
- a) Bere eskumenak beti Kontseilu Errektoreak eskuordetutakoak izango dira. Kontseiluak kontrol iraunkor eta zuzena egingo dio eta aipatu organo sozialak onartutako kudeaketa helburuak betetzeko exijituko dio.
 - b) Halaber, Kontseilu Errektorea izango da organo eskumenduna zuzendari kudeatzailearen kargua betetzen duen pertsona izendatzeko eta kargugabetzeko. Izendapena eta kargugabetzea Kooperatiben Erregistroan inskribatuko dira, eman zaizkion eskumenen ahalordetze eskriturarekin batera.
 - c) Zuzendaria bazkide erabiltzailea edo kanpkoa izan daiteke.
 - d) Zuzendaria Kontseilu Errektorearentzako aurreikusitako arauak aplikatuko zaizkio, erantzukizun akzioa aipatu organo sozialak baliatu ahal izango badu ere, Batzar Orokorraren erabaki sozialak aurkaratzeko jarritako epe berdinen barruan.
 - e) Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen, abenduaren 20koaren, 44. artikuluan aurreikusitako debekuak eta bateraezintasunak dituzten pertsonak ezin dira izan zuzendari kudeatzaile, ezta kooperatibako organo sozial bateko kide direnak ere.
 - f) Zuzendariaren funtzioak pertsona bakarrekoak edo kide anitzekoak izan daitezke.

36. artikulua. Zaintza Batzordea

- Bat.** Batzar Orokorrak estatutu hauen arabera bateraezintasunik ez duten edo eskubideak ahalgabetuta ez dituzten bazkideen artetik 3 kide izendatuko ditu, eta horiek Zaintza Batzordea eratuko dute, eta ordezkioak ere izendatu ahal izango ditu, lau urteko epealdi baterako. Zaintza Batzordean emakumeen eta gizonen kopurua orekatua izan dadin ahaleginduko da kooperatiba.
- Bi.** Zaintza Batzordeko kideak berriro aukeratuak izan daitezke eta Kontseilu Errektoreko kideentzako estatutu hauetan eta lege jarritako erantzukizun, ezgaitasun, debeku, lansari eta inskripzio arauen menpe egongo dira.
- Hiru.** Zaintza Batzordeak bere kideen artetik lehendakaria eta idazkaria izendatu ahal izango ditu. Urtean behin aldiz bilduko da, aurrez lehendakariak deialdia eginda, edo deialdirik ez balego, kideetako edozeinek egindako aurretiazko deialdiarekin. Halere, Kontseilu Errektoreko edo Zaintza Batzordeko edozein kidek idatziz eskatu diezaioke organo honetako lehendakariari bilera deitzeko, eskaeraren zergatiak adierazita. Eskaera gutxienez organoetako kideen heren batek eginga bada eta Zaintza Batzordea hilabeteko epean deitzen ez bada, talde eskatzaileetako edozeinek egin ahal izango du deia.
- Lau.** Kontseilu Errektoreak Zaintza Batzordeari kooperatibaren jardueren eta ustez izango duen bilakaeraren berri eman beharko dio, hiru hilabete behin gutxienez.
- Bost.** Zaintza Batzordeak honako eginkizun hauek betetzeko ahalmena du:
- Urteko kontuak berrikustea eta horiei eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko nahitaezko txostena egitea Batzar Orokorrari aurkeztu baino lehen, salbu eta kooperatibak bere finantza egoeraren kontu auditoretza egin behar duenean.
 - Kooperatibaren liburuak berrikustea.
 - Kooperatibaren intereserako beharrezkotzat jotzen duenean, Batzar Orokorrerako deialdia egitea, baldin eta administratzaileek bazkideek aurrez egindako eskariari ez badiote jaramonik egin ezarritako epeetan, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen, abenduaren 20koaren, 35. artikuluko 2. eta 3. ataletan xedatutakoaren arabera.
 - Ordezkaritza idazkien egokitasuna gainbegiratzea eta kalifikatzea, eta, oro har, batzarretara joateko eskubideari buruzko zalantzak edo intzidentziak ebaztea.

- e) Akordio sozialak aurkaratzea, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legean xedatutako kasuetan.
- f) Batzar Orokorrari ematea Batzarrak berak eskatutako egoera edo gai zehatzei buruzko informazioa.
- g) Batzar Orokorrak gainerako organoak osatzen dituzten pertsonak hautatzeko eta izendatzeko prozesua zaintzea.
- h) Euskadiko Kooperatibei buruzko Legearen, abenduaren 20koaren, 44. artikuluko ezintasun edo debeku arrazoiren batean sartu diren administratzaileen jarduna etetea, eta, hala badagokio, Batzar Orokorra egin arte ezinbestekoak diren neurriak hartzea.
- i) Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legeak berariaz esleitzen dizkion gainerako eginkizunak.

Sei. Kooperatibak bere egoera orri finantzarioak ikuskatu behar dituenean, kideek egoki baderitzote, Zaintza Batzordeak kontabilitate euskarri desberdinak aztertu ahal izango ditu, eta, hala badagokio, horiei buruzko txostena egin. Dena den, txosten hori ez da nahitaezkoa izango kooperatibaren urteko kontu ikuskatuak onartzeko.

Era berean, urteko kontuak ikuskatu arren, Zaintza Batzordeak soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko txostena egin ahal izango du.

Kasu bietan, Zaintza Batzordeak kontseilariak jakinarazi beharko die kooperatibaren urteko kontuei eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko nahitaezko txostena aurkezteko asmoa duela, bazkideek ohiko Batzar Orokorraren deialdia argitaratzen den unean bertan aztertu ahal izan dezaten.

Zazpi. Zaintza Batzordea urtean behin bilduko da gutxienez, eta lehendakariak bere ekimenez edo Zaintza Batzordeko edo Kontseilu Errektoreko kide batek gutxienez eskaera arrazoitua eginez deitzen duen aldiro; bere eskumeneko gai guztiak aztertu eta erabaki ahal izango dira bileretan.

Zaintza Batzordearen deialdia Kontseilu Errektoreko edo Zaintza Batzordeko kideen heren batek gutxienez eskatzen badu, eta deialdia hilabeteko epean egiten ez bada, talde eskatzaileetako edozeinek egin ahal izango du deialdia.

Zortzi. Zaintza Batzordearen bilkurak lehendakariak deituko ditu, idatziz, kide bakoitzari zuzenduta, gutxienez 5 egun lehenago.

Bederatzi. Zaintza Batzordea balioz eratuko da bilerara kideen erdia baino gehiago agertzen denean. Bertaratzea pertsonala eta eskuordezina izango da, eta bileran dauden Zaintza Batzordeko kideen botoen erdiak baino gehiagok hartuko ditu erabakiak. Kontseilari bakoitzak boto bat

izango du. Lehendakariaren botoak ez ditu berdinketak ebatziko. Boto zuriak eta abstentzioak ez dira zenbatuko.

Zaintza Batzordeko kideren batek organo horren bileretan parte hartzen badu eta bere borondatea aurreko paragrafoan adierazitako moduan adierazten badu, idazkariak berariaz jasoko du aktan kidearen identitatea eta horretarako erabilitako bidea, erabakiak baliozkotasunez hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzekin batera.

Hamar. Bileraren akta lehendakariak eta idazkariak sinatuko dute, eta labur-labur jasoko dira eztabaidak, erabakien testua eta bozketen emaitzak, eta akta liburuan jasoko da.

Hamaika. Likidazio aldian, Zaintza Batzordeak aurreko artikuluan adierazitako eginkizunak baino ez ditu beteko, baldin eta aldi horretan egokiak badira.

37. artikulua. Errekurtso Batzordea

Bat. Errekurtso Batzordeak dauka, eksklusiboki, bazkideen hutsegite larri edo oso larriengatik erakundearen barruan lehen auzialdian hartutako zehapen erabakiak berrikusteko eskumena, baldin eta eragindako pertsonak hala eskatzen badu.

Bi. Organo horretako kide izango dira soilik eskubide osoko bazkideak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Antzintasuna: bost urtekoa.
- b) Esperientzia kooperatiboa: Halakotzat joko da kooperatibako organo sozialen bateko kide izan den bazkidea, edo kooperatibako barne araudi osoari buruzko ezagutza egoki eta eguneratua duela egiaztatzen duena.
- c) Egokitasuna: Kooperatiban ibilbide bikaina duen pertsona izatea, eta, azken 5 urteetan, hutsegite sozialak edo lana egitearekin lotutakoak -larriak edo oso larriak- egiteagatik espedienterik ez edukitzea.
- d) Kooperatibako inolako kargu sozialik ez izatea.

Hiru. Errekurtso Batzordea osatuko dute 3 kide titularrek. Horiek Batzar Orokorrak aukeratuko ditu, isilpeko bozketa bidez, 4 urterako eta berraukeratuak izan daitezke. Aukeratutako pertsonak lehendakari bat eta idazkari bat aukeratuko dute beren artean.

Lau. Errekurtso Batzordea baliozkotasunez eratuko da bilkurara kideen erdia baino gehiago bertaratzen denean. Boto eskuordetza ez da baliozkoa izango, eta erabakiak gehiengo soilaz hartuko dira. Diziplina arloko

ebazpenak emateko bozketa isilpekoa izango da beti, eta ez da egongo lehendakariaren kalitateko botorik.

Bost. Errekurtsoen izapidetze eta ebazpenean ezin izango dute parte hartu eragindako bazkidearekiko bigarren mailako odol ahaidetasuna edo ezkontza ahaidetasuna duten kideek, edo espedientepean dagoen pertsonarekiko mendekotasuna, adiskidetasun mina edo ageriko etsaitasuneko loturak dituztenek.

Errekurtso Batzordearen aktetan jasoko da erabakien testua, Errekurtso Batzordearen liburuan transkribatuko dena, idazkariak eta lehendakariak sinatuta.

Errekurtso Batzordearen erabakiak behin betikoak eta berehala betearaztekoak izango dira, borondate sozialaren adierazpide gisa, eta aurkaratuak izan daitezke, Batzar Orokorrak hartu izan balitu bezala, Estatutu hauetako 28. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Sei. Errekurtso Batzordearen funtzionamendu araubideak, artikulua honetan xedatzen ez denerako, Kooperatibaren Barne Araudian xedatutakoari jarraituko dio.

V. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

38. artikulua. Erantzukizunak

Bat. Kooperatibak bere oraingo eta etorkizuneko ondare guztiarekin erantzungo du zor sozialengatik, kooperatiba hezkuntza eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenari dagokiona salbuetsita, zeren eta arlo horietan bere xedeak betetzeko hartutako betebeharren erantzule baino ez baita izango.

Bazkideek ez dute pertsonalki erantzungo sozietateren zorrengatik. Zor horiengatik duten erantzukizuna kapital sozialerako izenpetu zituzten ekarpenetara mugatzen da.

Bi. Bazkideek, baja eman eta gero ere, erantzukizuna izango dute baldin eta kontratuak izenpetu edo betebeharrak hartu badituzte, berariaz eta espresuki, sozietate kooperatiboarekin, eta betebeharrak horiek ez badira azkentzen, beren izaera dela-eta, bazkide izateari utzi eta gero.

39. artikulua. Kapital soziala.

Bat. Bazkideek egindako ondare ekarpenek, nahitaezkoek edo borondatezkoek, osatuko dute kooperatibaren kapital soziala.

Bi. Kooperatibaren gutxieneko kapital soziala **6000** eurokoa izango da.

- Hiru.** Kapital sozialera egindako ekarpenak partaidetza izenduneko liburuxketan egiaztatuko dira.
- Lau.** Ekarpentak diruz egingo dira, baina ondasun eta eskubideen bidez ere egin ahal izango dira. Kasu horretan, Kontseilu Errektoreak zehaztuko du ekarpenon balioa, horretarako izendatutako aditu independente batek edo batzuek txostena egin ondoren.
- Bost.** Bazkideek kapital sozialera egiten dituzten ekarpenak honelakoak dira:
- a) Kontseilu Errektoreak baldintza gabe ukatuz gero itzultzeko eskubiderik ez duten ekarpenak, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 60-1-b artikulua arabera. Aipatu ekarpenak honako hauek izango dira:
1. Bazkide erabiltzaileen hasierako nahitaezko ekarpenak
 2. Edozein bazkidek egindako borondatezko ekarpenak
- Baja kasuan itzultzeko eskubidea duten ekarpenak nahitaez bihurtu ahal izateko kooperatibak baldintza gabe ukatuz gero itzultzeko eskubiderik ez duten ekarpenak, edo alderantzizko bihurketa egiteko, estatutuak aldatzeko erabakia beharko da. Bazkideren bat ez badago ados horrekin, baja eman ahal izango du, eta baja hori justifikatutzat joko da.

40. artikulua. Kapital sozialeko nahitaezko ekarpenak

- Bat.** Hasierako nahitaezko ekarpena desberdina izan daiteke bazkide motaren arabera, eta honela zehazten da:
- Bazkide erabiltzaileek: 46 euro.
- Bazkide bakoitzaren kapital sozialerako gutxieneko ekarpen gisa, une bakoitzean indarrean dagoen hasierako nahitaezko ekarpenaren ehuneko ehun ezartzen da bazkide mota bakoitzerako, artikulua honen laugarren atalean aurreikusitakoaren arabera.
- Bi.** Bazkide izateko hasierako nahitaezko ekarpena onartu bezain laster harpidetu eta ordaindu beharko da; baldintza hori bete ezean, ez da inskribatuko Bazkideen Erregistro Liburuan.
- Hiru.** Kooperatibaren galerak bazkideei egozteagatik edo estatutuetan aurreikusitako zehapen ekonomikoagatik haietakoren batek kapital sozialari egindako ekarpena estatutu sozialen artikulua honen lehenengo atalean adierazitako gutxieneko zenbatekoaren azpitik geratzen bada, eraginpeko bazkideak edo bazkideek zenbateko horretara iritsi arte egin beharreko ekarpena egin beharko dute. Horretarako, Kontseilu Errektoreak berehala egingo dio/die dei

bazkideari edo bazkideei. Ekarpen hori hiru hilabeteko epean ordaindu beharko da, Kontseilu Errektorearen eskakizuna jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.

Lau. Batzar Orokorrak urtero ezarriko du bazkide berrientzako hasierako nahitaezko ekarpenaren zenbatekoa, eta nahitaezko ekarpen berriak eskatzea erabaki ahal izango du. Horretarako, zenbatekoa zehaztuko du, bazkide mota bakoitzarentzat desberdina, bai eta horiek ordaintzeko epeak eta baldintzak ere. Nahitaezko kapital gehikuntzarekin ados ez dagoen bazkideak baja hartu ahal izango du, eta borondatezko baja justifikatutzat joko da.

Batzar Orokorrak bazkideentzako nahitaezko ekarpen berriak adosten baditu, eta kooperatiban bazkideen borondatezko ekarpenak badaude, nahitaezko ekarpen berri horiek borondatezkoekin estali ahal izango dituzte, baldin eta Kontseilu Errektoreari idatziz eskatzen badiote hala egiteko, bertaratutako bazkideei buruzko akordioa onartu zenetik zenbatzen hasi, eta hamar eguneko epean; bazkide ez direnei dagokienez, berriz, erabakiaren berri duten egunetik aurrera zenbatuko da epea.

Bost. Eskatutako ekarpenak ordaintzeko berandutzarik badago bazkideren baten aldetik, aurreko ataletan ezarritakoaren arabera, kooperatibari legezko interesa ordaindu eta berandutzaren ondorioz egindako kalteen eta galeren ordaina eman beharko dio. Bazkideak bere egoera zuzentzeko agindua jaso eta hurrengo hirurogei egunetan ez badu zuzendu:

- a) Bazkide izateko hasierako nahitaezko ekarpena bada edo artikulua honetako lehenengo atalarekin lotuta hirugarren atalean aipatzen den gutxieneko zenbatekoa bada (biak ere artikulua honetakoak), nahitaezko baja eman ahal izango zaio, edo
- b) gainerako kasuetan, kooperatibatik kanporatu ahal izango dute.

41. artikulua. Borondatezko ekarpenak

Bat. Batzar Orokorrak erabaki ahal izango du bazkideek sozietatearen kapitalari borondatez egindako ekarpenak onartu ala ez, kontzeptu hauen baldintzak zehaztuta gutxienez:

- Ordaintzeko epea
- Interes tasa
- Eguneraketa
- Itzulketa
- Eskualdagarritasuna

Nahitaezko ekarpenak baino onuragarriagoak izan daitezke, baina ez da

inolaz ere diruaren legezko interesa gaindituko.

Bi. Kontseilu Errektoreak bazkideen borondatezko ekarpenak onartu ahal izango ditu, ordainsari mugak eta muga kuantitatiboak errespetatuz, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 63-2 eta 60-5 artikuluetan xedatutakoaren arabera; nahiz eta borondatezko ekarpenak ezin izango diren inoiz ordaindu diruaren legezko interesa baino interes tasa handiagoekin.

Hiru. 7 Bat c) artikuluan eta bigarren ataleko hirugarren paragrafoan aurreikusitako bazkide erabiltzaileak edota laguntzaileak diren onura publikoko entitate eta instituzio publikoek eta pribatuek mota guztietako ondare ekarpenak egin ahal izango dituzte, edozein titulu juridikoren bidez, baita lursailen, eraikinen eta bestelako ondasun higiezinaren lagapena ere, ekipatuta egon zein ez, baldin eta beharrezkoak badira kooperatiba ezartzeko edo behar bezala garatzeko.

42. artikulua. Ekarpnen eguneratzea

Bat. Kooperatibaren balantzea zuzenbide erkideko sozietateentzat xedatutako termino eta baldintza berekin arautuko da.

Bi. Balantzearen erregulazioaren ondorioz ateratzen den gainbalioa ekitaldi batean edo gehiagotan erabiliko da, lehenik eta behin, dauden galerak konpentsatzeko eta, gainerakoa, Batzar Orokorrak erabakitako kopurutan, kapitala eguneratzeko edo erreserbak handitzeko, nahitaezkoak zein borondatezkoak.

43. artikulua. Ekarpnen interesa

Kapital sozialera egindako nahitaezko ekarpenek ez dute inolako interesik sortuko; borondatezko ekarpenek, berriz, ez dute sekula gaindituko diruaren legezko interesa.

44. artikulua. Ekarpnen eskualdatzea

Bat. Ekarpnen *inter vivos* egintzen bidez eta *mortis causa* ondoretzaren bidez eskualdatu daitezke.

Titularren bajaren ondoren, kooperatibak itzultzea ukatu duen ekarpenak badaude, bazkide berrien hasierako nahitaezko ekarpenak baja hartu duen bazkidearen ekarpenak eskuratuz egin beharko dira.

Eskualdaketa, beraz, itzultzeko eskarien antzinatasunaren arabera egingo da; eskariak data berean egiten diren kasuan, berriz, ekarpenen zenbatekoaren arabera egingo da.

Bi. Bazkideen *inter vivos* egintzak, hurrengo hiru hilabeteetan bazkide izateko konpromisoa hartzen dutenak barne, honako arau hauen arabera:

- bazkide izateko konpromisoa hartu duen pertsonari eskualdatzeko baldintza izango da hura egiazki bazkide onartzea;
- eskualdatzen duen bazkidearen ekarpena ezin da izan une bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko nahitaezko ekarpena baino txikiagoa;
- eskualdatutako ekarpena eskuratu duenak haren hasierako nahitaezko ekarpena estaltzeko erabil dezake;
- erabakitako eskualdaketak Kontseilu Errektoreari jakinarazi behar zaizkio, hark berretsi, gainbegiratu eta erregistra ditzan.

Hiru. *Mortis causa* oinordetzaren bidez, kausadunei, bazkideak badira eta eskatzen badute, edo, bazkide ez badira, bazkidetzat onartu ondoren, heredatzen duenak heriotza gertatu eta hurrengo hiru hilabeteko epean eskatuta.

Lau. Bazkideen hartzekodun pertsonalek ez dute inongo eskubiderik izango kooperatiben ondasunen gainean eta bazkideek sozietatearen kapitalari egindako ekarpenen gainean, biak ala biak ezin enbargatuzkoak baitira. Horrek ez ditu eragotziko hartzekodunek balia ditzaketen eskubideak, hau da, bazkidearenak diren itzulketen, interesen eta itzulkinen gainean dituen eskubideak.

45. artikulua. Ekarpinak itzultzea

Bat. Bazkide izateari uzten zaion kasu guztietan, bazkideak edo haren kausadunak nahitaezko ekarpen kooperatiboen itzulketa eskatzeko ahalmena dute, baja egunean zeukaten balioarekin eta legezko xedapenetan ezarritako betekizunekin.

Alabaina, Kontseilu Errektoreak inolako baldintzarik gabe uko egin ahal izango dio estatutu hauetako 39 Bost a) artikuluan adierazitako edozein itzulketa eskaerari.

Itzultzeko sistema arau hauekin arautuko da:

- a) Kontseilu Errektoreak ekarpinak itzultzeko eskaera onartzea erabakitzen badu, erabaki hori hartzen den unetik hasi eta gehienez bost urteko epean itzuli beharko dira ekarpenok, edo urtebeteko epean, baldin eta bazkidearen heriotzagatik eskatu bada itzulketa. Kontseilu Errektoreari egokituko zaio erabakia hartzea.
- b) Kontseilu Errektoreak erabakitako itzulketak, zehazki, eskaeren

antzinatasunaren arabera egin behar dira. Ekarpen sozialak itzultzeko baldintzak zehazteari buruzko gainerako berezitasunak ere Kontseilu Errektorearen esku egongo dira.

- c) Kooperatibak itzulketa adostu duen ekarpenetan, itzultzeke dauden kopuruek eskubidea emango dute ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran indarrean dagoen diruaren legezko interesa gutxienez jasotzeko, baina ezin izango dira eguneratu.
- d) Kontseilu Errektoreak erabakitzen badu ekarpenen itzulketari uko egitea, une horretatik aurrera eta itzulketa ukatu zaion ekarpenen bat mantentzen den bitartean, kooperatibako organo sozialek, hala badagokio, eta 2 hilabete baino gutxiagoko epean, honako erabaki hauek hartu beharko dituzte:
 - %0ko interes tasa ezartzea bazkideek kapitalera egindako ekarpenen ordainsari gisa.
 - Soberakin guztiak Nahitaezko Erreserba Funtsera eta/edo Borondatezko Funts Banaezinetara bideratzea, Nahitaezko Funtsera bideratu beharreko zenbatekoak kenduta.

Itzuli beharreko Ekarpenen zenbatekoa baja gertatzen den ekitaldiaren itxierako Balantzearen arabera ebaluatuko da, eta aipatu bajaren datan kalkulatu da.

Batzar Orokorrak erabaki ahal izango du bazkideen kapital soziala murriztea, egokitze jotzen diren zenbatekoetan, eta, edonola ere, bazkideek mantendu egin beharko dituzte kooperatiban bazkide mota bakoitzerako indarrean dauden gutxieneko nahitaezko ekarpenak. Egoera horretan, Batzar Orokorrak zehaztuko du bazkide bakoitzari itzuli beharreko zenbatekoa eta itzultzeko epea.

Bi. Baja justifikatua bada edo heriotzagatik gertatu bada, ekarpenei ez zaie inolako kenketarik egingo.

Gainerako kasuetan, Kontseilu Errektoreak honako kenketa hauek egitea erabaki dezake:

- %30era arte, baja kanporatzeagatik izan bada,
- gehienez ere %20, justifikatu gabeko bajetan, borondatezkoa zein nahitaezkoa izan.

Beti ere, bazkidearen nahitaezko ekarpenen likidazio zenbatekoaren gainean; borondatezko ekarpenek ez dute kenkaririk izango.

Hiru. Nolanahi ere, baja eragin duen bazkideari itzuli beharreko ekarpenetik dagokion deskontua egiteko, baja gertatu den ekitaldiaren itxiera balantzean adierazitako galerak zenbatuko dira, bai ekitaldi

horretakoak, bai aurreko beste batzuetatik datozenak, bai konpentsatu gabe daudenak, kapital sozialaren ekarpenen mugaraino, salbu eta bazkideek berariaz eta espresuki kontratuak sinatu badituzte edo sozietate kooperatiboarekin betebeharrak beren gain hartu badituzte, zeintzuk, beren izaeragatik, ez diren azkentzen bazkide izaera galduz gero; halakoetan, horiek betetzearen erantzukizuna izango dute, baita baja eragin ondoren ere.

46. artikulua. Partaidetza bereziak

- Bat.** Partaidetza berezitzat hartzen dira Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 67. artikuluan xedatutako erregulazioari atxikitako mendeko finantzaketak, non nabarmentzen baita finantzaketa horiek ezingo direla itzuli jaulkipenetik edo kontratazio datatik gutxienez bost urte igaro arte, eta haien ordainketa kooperatibaren emaitzen arabera finkatuko dela.
- Bi.** Batzar Orokorraren eskumena da partaidetza bereziak onartzea, eta dagokion erabakian zera zehaztuko du:
- a) kontratazioaren edo jaulkipenaren zenbatekoa eta baldintzak, zeinak ezingo dituzten inola ere Batzar Orokorrean botoa emateko edo Kontseilu Errektorean parte hartzeko eskubideak eman,
 - b) bazkideei eta soldatapeko langileei eskainitako zenbatekoa, hirugarrenei eskaini aurretik, guztizkoaren %50 baino txikiagoa izango ez dena.

47. artikulua. Sarrera kuotak, aldizkakoak eta ezohikoak.

- Bat.** Batzar Orokorrak sarrera kuotak eta aldizkakoak ezarri ahal izango ditu, eta bazkideek ordaindu egin beharko dituzte, aipatutako organo sozialak ezartzen duen akordioan zehaztutako aldizkakotasunarekin, zenbatekoarekin eta moduan. Sarrera kuotek ezin izango dute gainditu kasuan kasuko motako bazkide izaera lortzeko une bakoitzean indarrean dagoen kapital sozialari egin beharreko gutxieneko ekarpenaren %25.
- Kuota horiek ez dira kapital sozialaren parte izango, eta ezin izango zaizkie itzuli bazkideei.
- Bi.** Era berean, Batzar Orokorrak unean-unean ezohiko kuotak onartu ahal izango ditu, hala eskatzen duten inbertsio espezifikoak egiteko.
- Aldizkako kuotak eta ohiz kanpokoak bazkide mota guztiei eskatu ahal izango zaizkie, edo estatutu hauetan aurreikusitako sozietate tipologietakoren bati soilik.

48. artikulua. Beste finantzaketa batzuk

Kooperatibak, aurrez dagozkion akordioak hartuta, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen, abenduaren 20koaren, 68. artikuluko 3. eta 4. ataletan xedatutako finantzaketa motak erabili ahal izango ditu.

49. artikulua. Soberakin garbiak

Bat. Soberakin garbiak zehazteko, merkataritza sozietateentzat ezarritako arauak eta irizpideak aplikatuko dira, hurrengo atalean xedatutakoa kontuan hartuta.

Bi. Hauek hartuko dira partida kengarritzat:

- Kooperatiben kudeaketarako entregatutako ondasunen zenbatekoa, merkatuko prezioen balorazioa gaingituko ez duena.
- Kapital sozialari egindako ekarpenek sortutako interesak, bai eta partaidetza bereziek sortutakoak eta kapital sozialean integratu gabeko ekarpenek eta finantzaketek sortutakoak ere.
- Legez baimendutako amortizazioak.
- Kooperatibaren funtzionamendurako beharrezkoak diren gastuak.
- Indarrean dagoen legeria aplikagarriak ondorio berberetarako aitortutako beste edozein kenkari.

50. artikulua. Soberakin erabilgarriak banatzea

Bat. Soberakin garbiak, behin aurreko ekitaldietatik zetozen galerak konpentsatzeko erabiltzen diren zenbatekoak kenduta eta bidezko zergak ordainduta, soberakin erabilgarriak izango dira.

Bi. Batzar Orokorrak soberakin erabilgarriak banatuko ditu, honako arau hauei jarraituta:

- a) Gutxienez %30 Nahitaezko Erreserba Funtsera eta Kooperatiba Heziketa eta Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu batzuetarako Derrigorrezko Kontribuzio gisa (aurrerantzean, Derrigorrezko Kontribuzioa); gutxienez %10 Derrigorrezko Kontribuziora bideratu beharko da, eta %20, Nahitaezko Erreserba Funtsera.
- b) Nahitaezko Erreserba Funtsa kapital sozialaren %50era iristen ez den bitartean, Derrigorrezko Kontribuzioaren alde ezarritako gutxieneko zuzkidura erdira murriztu ahal izango da.

Hiru. Gainerako soberakinak, Batzar Orokorrak erabakitako proportzioetan, hala badagokio, Nahitaezko Erreserba Funtsa eta Derrigorrezko Kontribuzioa hobetzeko eta Borondatezko Erreserba Funtz Banaezina

eratzeko edo hobetzeko erabiliko dira.

51. artikulua. Nahitaezko Erreserba Funtsa eta Derrigorrezko Kontribuzioa

Bat. Nahitaezko Erreserba Funtsa Kooperatiba sendotu, garatu eta bermatzeko da, eta ezin da banatu bazkideen artean.

Aurreko artikuluan aurreikusitako zuzkidurez gain, funts honetara bideratuko dira, nahitaez, bazkideak baja hartzen duenean kapital sozialera egindako nahitaezko ekarpenari kentzen zaion kopurua eta sarrera kuotak.

Bi. Derrigorrezko Kontribuzioa ezin da enbargatu, eta haren zuzkidurak balantzeko pasiboan agertu beharko dira, beste partida batzuetatik bereizita.

Aurreko artikuluan xedatutako zuzkidurez gain, bazkideei ezarritako zehapen ekonomikoen zenbatekoa ere derrigorrez bideratuko da Derrigorrezko Kontribuzio horretara.

Hiru. Derrigorrezko Kontribuzioa, zeinaren aplikaziorako jarraibide orokorrak berariazko araudian arautuko diren eta Batzar Orokorrak ekitaldi bakoitzerako finkatuko duen, interes publikoko helburu hauetakoren baterako erabiliko da:

- a) Bazkideek eta langileek kooperatibismoari, kooperatiba jardueri eta lanpostuarekin zerikusirik ez duten beste gai batzuei buruzko prestakuntza eta hezkuntza izan dezaten.
- b) Kooperatiben arteko harremanak sustatzea, kooperatiben arteko sustapenerako, laguntzarako, zuzendaritza komunerako edo laguntza jardueretarako sortutako erakundeetan parte hartzeagatiko gastuak estaltzea barne.
- c) Hezkuntza, kultura, lanbide eta laguntza sustapena, eta kooperatibismoaren ezaugarriak zabaltzea kooperatibaren gizarte ingurunean eta, oro har, gizartean.
- d) Euskararen erabilera sustatzea.
- e) Enpresa kooperatibo berriak sustatzea, euskal mugimendu kooperatiboak bultzatutako irabazi-asmorik gabeko erakunde bati egindako diru ekarpenen bidez.
- f) Bazkideak eta langileak prestatzea eta hezteak, sozietate kooperatiboetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean aurrera egiteko politika eraginkorra sustatzeko.

Lau. Kooperatibak adierazitako interes publikoko helburuetarako erabili ez den Derrigorrezko Kontribuzio horren zenbatekoa, soberakinaren banaketa onartu eta hurrengo ekitaldian, irabazi-asmorik gabeko

erakundeei eman beharko zaie, aplikatzekoa den indarreko legeriak Derrigorrezko Kontribuzio honetarako ezarritako interes publikoko helburuetara bideratu dadin.

52. artikulua. Borondatezko Erreserba Funts Banaezina

Kooperatibak, Batzar Orokorrak aurretik hala erabakita, Borondatezko Erreserba Funts Banaezin bat era dezake, galerak konpentsatzeko.

53. artikulua. Galerak egozte

- Bat.** Batzar Orokorrak, galerak egozteko, honako arau hauei jarraituko die:
- a) Balantzeak erregularizatzeko funtsetik ahal den zenbatekoa erabiliko da, 42.2 artikulua adierazitakoaren arabera.
 - b) Borondatezko Erreserba Funts Banaezinak egonez gero, haiei egotziko zaizkie galera guztiak.
 - c) Nahitaezko Erreserba Funtsari egotziko zaio, gehienez ere, soberakin positiboak izan diren azken bost urteetan lege nahitaezkoak diren funtsetara bideratutako batez besteko ehunekoa, eta eraketa bost urte horiek baino lehenagokoa ez bada, eratu zeneko data hartuko da abiapuntutzat. Halere, baldin eta Nahitaezko Erreserba Funtsa kooperatibaren kapital sozialaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago bada, galerak konpentsatzeko ere erabili ahal izango da ehuneko horretatik gorako zenbatekoa.
 - d) Bestalde, a), b) eta c) puntuen arabera konpentsatu ez den zenbatekoa bazkideei egotziko zaie, beren jarduera kooperatibizatuaren proportzioan.
- Bi.** Aurreko atalean adierazitakoa alde batera utzita, Batzar Orokorrak erabaki ahal izango du ekitaldi bateko galeren zati bat edo galera denak kontu berezi batera egozte, etorkizuneko emaitza positiboen kontura amortizatzeko, bost urteko epean. Epe hori igaro ondoren, konpentsatu gabeko galerak geratzen badira, artikulua honetako lehenengo ataleko b), c) eta d) puntuetan ezarritakoaren arabera ordainduko dira; eta, azken kasuan, urtebeteko epean ordaindu beharko dira.
- Aldi horretan baja hartzen duten bazkideei konpentsatzeke dagoen galera funtsari dagokion zatia egotziko zaie.

54. artikulua. Kontu auditoretzak

- Bat.** Kooperatibak kanpo auditoretza egin beharko du, Kontu Auditoretzaren Legean eta hura garatzeko arauetan ezarritako

baldintzetan, urteko kontuak eta ekitaldiko kudeaketa txostena, honako kasu hauetakoren bat gertatzen denean:

- a) Erregelamendu bidez ezartzen diren mugak gainditzen dituenean. Muga horiek eragina izango dute, gutxienez, negozio zifran, balantzearen araberrako aktiboaren guztizko zenbatekoan eta aipatutako legetik edo lege hori garatzeko arauetatik ateratako batez besteko enplegu kopuruan.
- b) Batzar Orokorrerako deialdia egiteko eskaera behar besteko bazkide gutxiengo batek egiten duenean, eta, betiere, eskatzaileek beren kostuei aurre egiten badiete, kontabilitatean akats edo irregulartasun nabarmenak atzemanaz gero haiek itzultzeari kalterik egin gabe.
- c) Batzar Orokorrak, Kontseilu Errektoreak edo Zaintza Batzordeak hala erabakitzen dutenean.

Bi. Auditoreak Batzar Orokorrak izendatuko ditu, eta, halakorik ezean, Kontseilu Errektoreak; kasu horretan, izendapenaren berri emango dio egingo den lehenengo Batzar Orokorrari.

VI. KAPITULUA. DOKUMENTAZIO SOZIALA ETA KONTABILITATEA

55. artikulua. Dokumentazio soziala

Bat. Kooperatibak honako liburu hauek eramango ditu, behar bezala eta egunean jarrita:

- a) Bazkideen erregistroa.
- b) Kapital sozialera egindako ekarpenen erregistroa.
- c) Batzar Orokorraren eta Kontseilu Errektorearen aktak, eta, hala badagokio, Zaintza Batzordearenak eta Errekurtso Batzordearenak.
- d) Inbentario eta balantzeen liburua.
- e) Egunerokoa.
- f) Legezko xedapenek agintzen dituztenak.

Eta erabili aurretik Euskadiko Kooperatiben Erregistroak gaitu edo legeztatu beharko ditu.

Bi. Kontabilitateko idazpen eta oharrak prozedura informatikoen bitartez edo egokiak diren beste prozedura batzuen bitartez egingo dira. Ondoren, orriz orri jarri eta azaleztatuko dira, eta ekitaldia amaitu eta sei hilabeteren epean legeztatuko dira Kooperatiben Erregistroan.

Aipatutakoaz gain, aurreko atalean aipatutako organoen aktak, informatikako prozeduren bitartez edo antzeko prozeduren bitartez

egindakoak, Kooperatiben Erregistrora bidaliko dira, ziurtagiri bidez, aktak onartu eta hurrengo bi hilabeteko epean legeztatzen.

56. artikulua. Kontabilitatea

Bat. Kooperatibak bere jarduerari dagokion kontabilitatea eramango du, Merkataritza Kodean eta aplikagarriak diren gainerako legezko xedapenetan ezarritakoaren arabera, eta, betiere, kooperatibentzako araubide ekonomikoaren berezitasunak errespetatuz.

Kooperatibaren ekitaldi ekonomikoa urte jakin bateko urtarilaren 1ean hasiko da, eta hurrengo urteko abenduaren 31n amaitu.

Bi. Ekitaldia ixtean, Kontseilu Errektoreak kooperatibaren urteko kontuak formulatu beharko ditu, hiru hilabeteko epean, gehienez ere, sozietatearen ekitaldia ixten denetik aurrera kontaturik, eta bat etorrita aplikagarri zaion informazio finantzarioari buruzko araudi esparruarekin. Kontuetan jaso beharko dituzte balantzea, irabazi-galeren kontua, memoria eta, hala badagokio, ondare garbian izandako aldaketen egoera eta efektibo fluxuen egoera.

Kontseilu Errektoreak dagokion kudeaketa txostena ere aurkeztuko du, urteko kontuekin batera, merkataritza legeriaren arabera, eta, hala badagokio, informazio ez-finantzarioaren egoera orria, kudeaketa txostenean edo bereizitako txosten batean jasoa.

57. artikulua. Urteko Kontuen Gordailua

Kontseilu Errektoreak urteko kontuak eta, hala balegokio, Gestio Txostena eta kontu auditoreen txostena aurkeztuko ditu Kontseilu Errektoreko kide guztiek sinatuta, Batzar Orokorrak onartu eta hilabeteko epean, Kooperatiben Erregistroan gordetzeko. Kideren batek sinatzerik ez badu, espresuki zergatia adieraziko da.

VII. KAPITULUA. DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

58. artikulua. Desegiteko arrazoiak eta erabakia

Bat. Honako hauek dira kooperatiba desegiteko arrazoiak:

- a) Estatutuetan definitutako xede soziala betetzeko ezintasuna dagoela argi eta garbi ikustea.
- b) Organo sozialak gelditzea edo jarduerarik ez izatea, edo kooperatibaren jarduna, arrazoirik gabe, etetea, batean zein bestean elkarren segidako bi urtetan.

- c) Kooperatiba eratzeke lege eskatzen den gutxienekotik behera eta hamabi hilabetez baino gehiagoz murriztea bazkide kopurua.
- d) Estatutueta ezartzen den gutxienekotik behera murriztea sozietatearen kapitala, baldin eta hamabi hilabete edo gehiago irauten badu murrizketa horrek.
- e) Bat egitea edo guztizko zatiketa.
- f) Kooperatiba desagiteko adierazpena, erakunde horren likidazio fasea irekitzen duen ebazpen judizialean jaso, konkurtso egoeran dagoenean, Konkurtso Legearen testuategina onartzen duen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorritik.
- g) Propio helburu horrekin deitutako Batzar Orokorraren erabakia, horretarako aurreikusitako gehiengoarekin.
- h) Legeetan edo honako estatutu hauetan ezarritako beste edozein arrazoi.

Bi. Desagiteko erabakiak gehiengo arruntez hartuko dira, e) eta g) kasuetan izan ezik; kasu horietan, bi herenek osatutako gehiengo beharko da, bertaratutako eta ordezkaturako botoak kooperatibaren boto guztien ehuneko hirurogeita hamabost baino gutxiago badira; izan ere, ehuneko hori edo handiagoa balitz, erabakia gehiengo arruntez hartuko litzateke.

Hiru. Kausa horiek gertatzen badira, Kontseilu Errektoreak Batzar Orokorrerako deialdia egin beharko du bi hilabeteko epean; eta, hala ez bada, edozein bazkidek eskatu ahal izango du Kontseilu Errektoreari deialdia egin dezala.

Kontseilu Errektoreak, edo interesa duen edonork, Kooperatibaren desagite judiziala eskatu ahal izango du, hauetako kasuren bat gertatzen bada:

- a) Batzar Orokorrerako deia egin ez bada.
- b) Batzar Orokorrak estatutuek ezarritako epean bilerarik egiten ez badu.
- c) Batzar Orokorrak bilera egin, eta desagiteko erabakirik hartu ezin izan badu.
- d) Batzar Orokorrak bilera egin, eta desagitearen aurkako erabakia hartu badu.

Lau. Desagiteko erabakia edo hura deklaratzeko duen ebazpen judiziala Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuko da, eta, horrez gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako lurralde

historikoan zabalkunde handia duen egunkari batean argitaratuko da.

59. artikulua. Likidazioa

Kooperatibaren likidazioa Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 93. artikuluan eta hurrengoetan eta aplikatzekoak diren gainerako indarreko xedapenetan jasotakoaren arabera egingo da.

60. artikulua. Sozietatearen ondasunak esleitzea

- Bat.** Sozietatearen ondasunak ezin izango dira esleitu edo banatu, harik eta sozietatearen zorrak oso-osorik ordaindu arte, zor horiek kontsignatu arte edo mugaeguneratu gabeko kredituen ordainketa ziurtatu arte.
- Bi.** Aurreko atalean zerrendatutako zorrak ordaindu ondoren, sozietatearen gainerako ondasunak hurrenkera honetan esleitu dira:
- a) Kooperatiba Sustapen eta Hezkuntzarako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren esku jarriko da.
 - b) Bazkideei kapital sozialari egindako ekarpenen zenbatekoa itzuliko zaie, hala badagokio eguneratuta, borondatezko ekarpenetatik hasita eta nahitaezko ekarpenekin jarraituz.
 - c) Estatutuetan edo Batzar Orokorraren erabakiz banatzeko modukoak diren borondatezko erreserba funtsetan duten partaidetza itzuliko zaie bazkideei. Funts horiek estatutuetan edo akordio horretan ezarritako arauen arabera banatuko dira, eta, halakorik ezean, bazkide bakoitzak azken bost urteetan kooperatibarekin egindako eragiketa, zerbitzu edo jardueren proportzioan, edo iraupen laburragoko kooperatiben kasuan, eratu zireneko data abiapuntu hartuta.
 - d) Bai Nahitaezko Erreserba Funtsaren bai Kooperatibaren ondasun likidoaren soberakina, halakorik balego, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren esku jarriko da.
- Hiru.** Estatutu hauen 39. Bost. a) artikuluan xedatutako ekarpenak itzultzen ez diren bitartean, baja eman duten titularrek eta itzulkinak jasotzeari dagokionez kooperatibaren ukoa jaso dutenek sozietatearen ondasunen esleipenean parte hartuko dute, kooperatiba sustapen eta hezkuntzarako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenak egin ondoren, eta, estatutuetan kontrakoa xedatzen ez bada behintzat, gainerako ekarpenak itzuli aurretik.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Kooperatiba arbitrajea

Kooperatiba honen eta beste kooperatiba batzuen artean edo kooperatiba honen eta kooperatibako bazkideen artean harreman kooperatibizatuen esparruan –baita likidazio aldian ere– sortzen diren auziak Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren zuzenbideko arbitrajearen mende jarriko dira nahitaez, kooperatibaren barne bideak, eta, hala badagokio, baita kontziliazio bideak ere, agortu ondoren, Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuaren bitartez, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak euskal kooperatibetan gatazkak konpontzeko prozedurei buruz duen Erregelamenduaren arabera (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 34. zk., 2012ko otsailaren 16koa), edo etorkizunean hura ordeztuko duenaren arabera. Betiere, ezinbestekoa izango da organo horrek era horretako auziak ebazteko eskumena izatea, eta aldeek berariaz hitzeman beharko dute arbitraje horren ondoriozko laudoa beteko dutela.

Kooperatibetako bazkideek, edozein motatakoak direla ere, bazkideen eta kooperatibaren artean beren izaeragatik sor daitezkeen gatazkak ebazteko, lehenik eta behin kooperatibaren barne bideak agortu beharko dituzte, 11/2019 Legean, abenduaren 20koan, Euskadiko Kooperatibei buruzkoan, lege hori garatzeko arauetan, estatutu sozialetan edo kooperatiba barneko arauetan xedatuta dagoen bezala.

Bigarrena. Delituak prebenitzeko eredua eta segimendua egiteko mekanismoak

- Bat.** Kooperatibak delituak prebenitzeko eredua bat edukiko du, eta haien segimendua egiteko mekanismo bat ezarriko du.
- Bi.** Eredua horren edukia Kontseilu Errektoreak onartuko du, eta honako hauek jasoko ditu: arriskuen mapa; erabakiak hartzeko protokoloa; kudeaketa eredua; salaketa sistema; zehapen araubidea; egiaztapen sistema; aldizkako berrikuspena; eta Delituak Prebenitzeko Ereduaren eguneratzea.
- Hiru.** Delituak prebenitzeko eredua eta eredua horrek funtzionatzen duela eta betetzen dela gainbegiratzeko ardura ekimen botere eta kontrol botere autonomoak dituen kooperatibako organo bati eman behar zaio, edo, bestela, pertsona juridikoaren barne kontrolen eraginkortasuna ikuskatzeko legezko funtzioa duen organo bati. Kooperatibak besteren kontura diharduten 250 bazkide langile baino gehiago ez baditu, Kontseilu Errektorearen esku utziko da funtzio hori. Kopuru hori

gainditzen badu, ordea, organo espezifiko bat izendatu beharko da funtzio horiek bere gain hartzeko, zigor arloko indarreko araudian horrela ezarrita dagoelako.

Hirugarrena. Kooperatiba indarkeria sexistarik gabeko eremu bat izateko baliabide espezifikoak

- Bat.** Kooperatibak indarkeriarik gabeko lan eremuak edukiko ditu, non emakume eta gizonentzako berdintasun printzipioak errespetatuko diren.
- Bi.** Kooperatibak sexu jazarpenagatiko eta sexuan oinarritutako jazarpenagatiko protokolo bat edukiko du. Protokolo horretan, sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruz aurkeztutako erreklamazioak eta salaketak ebazteko jarduketak jasoko dira, eta behar diren bermeekin aplikatuko da.
- Hiru.** Kooperatibak beharrezko prestakuntza eta informazioa eskainiko die bere bazkide langile guztiei eta besteren konturako langile guztiei, aipatutako eskubideak erabat errespetatu beharraz jabetu daitezen.